

Arik!

erriko aldizkaria



Kiki Begoña

Korrikalariaren indarra eta kemena



Gora Larrabetzu



**Larrabetzuko
Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez
herritar guztioi**



1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017, 2018, 2019, 2020, 2021, 2022, 2023, 2024, 2025, 2026, 2027, 2028, 2029, 2030, 2031, 2032, 2033, 2034, 2035, 2036, 2037, 2038, 2039, 2040, 2041, 2042, 2043, 2044, 2045, 2046, 2047, 2048, 2049, 2050, 2051, 2052, 2053, 2054, 2055, 2056, 2057, 2058, 2059, 2060, 2061, 2062, 2063, 2064, 2065, 2066, 2067, 2068, 2069, 2070, 2071, 2072, 2073, 2074, 2075, 2076, 2077, 2078, 2079, 2080, 2081, 2082, 2083, 2084, 2085, 2086, 2087, 2088, 2089, 2090, 2091, 2092, 2093, 2094, 2095, 2096, 2097, 2098, 2099, 2100, 2101, 2102, 2103, 2104, 2105, 2106, 2107, 2108, 2109, 2110, 2111, 2112, 2113, 2114, 2115, 2116, 2117, 2118, 2119, 2120, 2121, 2122, 2123, 2124, 2125, 2126, 2127, 2128, 2129, 2130, 2131, 2132, 2133, 2134, 2135, 2136, 2137, 2138, 2139, 2140, 2141, 2142, 2143, 2144, 2145, 2146, 2147, 2148, 2149, 2150, 2151, 2152, 2153, 2154, 2155, 2156, 2157, 2158, 2159, 2160, 2161, 2162, 2163, 2164, 2165, 2166, 2167, 2168, 2169, 2170, 2171, 2172, 2173, 2174, 2175, 2176, 2177, 2178, 2179, 2180, 2181, 2182, 2183, 2184, 2185, 2186, 2187, 2188, 2189, 2190, 2191, 2192, 2193, 2194, 2195, 2196, 2197, 2198, 2199, 2200, 2201, 2202, 2203, 2204, 2205, 2206, 2207, 2208, 2209, 2210, 2211, 2212, 2213, 2214, 2215, 2216, 2217, 2218, 2219, 2220, 2221, 2222, 2223, 2224, 2225, 2226, 2227, 2228, 2229, 2230, 2231, 2232, 2233, 2234, 2235, 2236, 2237, 2238, 2239, 2240, 2241, 2242, 2243, 2244, 2245, 2246, 2247, 2248, 2249, 2250, 2251, 2252, 2253, 2254, 2255, 2256, 2257, 2258, 2259, 2260, 2261, 2262, 2263, 2264, 2265, 2266, 2267, 2268, 2269, 2270, 2271, 2272, 2273, 2274, 2275, 2276, 2277, 2278, 2279, 2280, 2281, 2282, 2283, 2284, 2285, 2286, 2287, 2288, 2289, 2290, 2291, 2292, 2293, 2294, 2295, 2296, 2297, 2298, 2299, 2300, 2301, 2302, 2303, 2304, 2305, 2306, 2307, 2308, 2309, 2310, 2311, 2312, 2313, 2314, 2315, 2316, 2317, 2318, 2319, 2320, 2321, 2322, 2323, 2324, 2325, 2326, 2327, 2328, 2329, 2330, 2331, 2332, 2333, 2334, 2335, 2336, 2337, 2338, 2339, 2340, 2341, 2342, 2343, 2344, 2345, 2346, 2347, 2348, 2349, 2350, 2351, 2352, 2353, 2354, 2355, 2356, 2357, 2358, 2359, 2360, 2361, 2362, 2363, 2364, 2365, 2366, 2367, 2368, 2369, 2370, 2371, 2372, 2373, 2374, 2375, 2376, 2377, 2378, 2379, 2380, 2381, 2382, 2383, 2384, 2385, 2386, 2387, 2388, 2389, 2390, 2391, 2392, 2393, 2394, 2395, 2396, 2397, 2398, 2399, 2400, 2401, 2402, 2403, 2404, 2405, 2406, 2407, 2408, 2409, 2410, 2411, 2412, 2413, 2414, 2415, 2416, 2417, 2418, 2419, 2420, 2421, 2422, 2423, 2424, 2425, 2426, 2427, 2428, 2429, 2430, 2431, 2432, 2433, 2434, 2435, 2436, 2437, 2438, 2439, 2440, 2441, 2442, 2443, 2444, 2445, 2446, 2447, 2448, 2449, 2450, 2451, 2452, 2453, 2454, 2455, 2456, 2457, 2458, 2459, 2460, 2461, 2462, 2463, 2464, 2465, 2466, 2467, 2468, 2469, 2470, 2471, 2472, 2473, 2474, 2475, 2476, 2477, 2478, 2479, 2480, 2481, 2482, 2483, 2484, 2485, 2486, 2487, 2488, 2489, 2490, 2491, 2492, 2493, 2494, 2495, 2496, 2497, 2498, 2499, 2500, 2501, 2502, 2503, 2504, 2505, 2506, 2507, 2508, 2509, 2510, 2511, 2512, 2513, 2514, 2515, 2516, 2517, 2518, 2519, 2520, 2521, 2522, 2523, 2524, 2525, 2526, 2527, 2528, 2529, 2530, 2531, 2532, 2533, 2534, 2535, 2536, 2537, 2538, 2539, 2540, 2541, 2542, 2543, 2544, 2545, 2546, 2547, 2548, 2549, 2550, 2551, 2552, 2553, 2554, 2555, 2556, 2557, 2558, 2559, 2560, 2561, 2562, 2563, 2564, 2565, 2566, 2567, 2568, 2569, 2570, 2571, 2572, 2573, 2574, 2575, 2576, 2577, 2578, 2579, 2580, 2581, 2582, 2583, 2584, 2585, 2586, 2587, 2588, 2589, 2590, 2591, 2592, 2593, 2594, 2595, 2596, 2597, 2598, 2599, 2600, 2601, 2602, 2603, 2604, 2605, 2606, 2607, 2608, 2609, 2610, 2611, 2612, 2613, 2614, 2615, 2616, 2617, 2618, 2619, 2620, 2621, 2622, 2623, 2624, 2625, 2626, 2627, 2628, 2629, 2630, 2631, 2632, 2633, 2634, 2635, 2636, 2637, 2638, 2639, 2640, 2641, 2642, 2643, 2644, 2645, 2646, 2647, 2648, 2649, 2650, 2651, 2652, 2653, 2654, 2655, 2656, 2657, 2658, 2659, 2660, 2661, 2662, 2663, 2664, 2665, 2666, 2667, 2668, 2669, 2670, 2671, 2672, 2673, 2674, 2675, 2676, 2677, 2678, 2679, 2680, 26




ORINDEGIA - GOZOTEGIA

TXISPAMENDI

Garthmanrell, J. Lamberton (Ritchie) Rd 4PM 20 30

Name: _____
 Address: _____
 City: _____
 State: _____
 Zip: _____

THE UNIVERSITY OF CHICAGO
CHICAGO, ILLINOIS
DEPARTMENT OF CHEMISTRY



Address: 10000
Phone: 800-855-8000



LAPLADATEU
RECEA



1999



THESE

THESE RESEARCHES ARE FINANCED BY THE
MINISTRY OF RESEARCH AND INNOVATION

TELE 94-40471

 **Riverside Foundation S.A.**

EXEMPLO INSTALAÇÃO DE
DEROGAÇÃO, CASA ELAURA

THE UNIVERSITY OF CHICAGO PRESS
50 EAST LEXINGTON AVENUE
NEW YORK, NY 10017-2453

© 2004 Blackwell Publishing Ltd
© 2004 Blackwell Publishing Ltd

Aikor!

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Menteak, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Pospolin, Jon Goikouria eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Ixone Urrutikoetxea, Urko Lasarte, Asier Saenz, Asun Gaztelu, Erika Pereda, Jon Legarreta, Oihana Astobietta, Aitor Mujika, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Juan Luis Goikoetxea, Gotzon Barandiaran eta Juanxu Bilbao

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.500

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
DEIALDEKO BATZORDEA

2010-11-15-2011-12-31


Hizkuntza Politikaren 2011-2012-ko Planaren arabera




BFA DFB
Eusko Jaurlaritzaren Deialdeko Batzordea
Eusko Jaurlaritzaren Deialdeko Batzordea



diruz lagundutako aldizkaria



12 Iñaki Perurena



16 Sanmartinbaso lorategi botanikoa



29 Lezamako jaiak



26 Larrabetzuko jaiak



24 Jurgi Kintana

AURKIBIDEA

- 4Eritxia 5Laburrak eta albisteak 12Gurean izan da...
Iñaki Perurena 14Sondikako futbol Campusa
16Sanmartinbaso lorategi botanikoa
18Euskal jaia 24Jurgi Kintana
26Larrabetzuko jaiak 29Lezamako jaiak
32Zalditerapia 34Sondikako betiko koadrila
36Txorierritarak munduan
38Teknologia 39Antxinako argazkia
40Sukaldaritza 41Denborapasa 42Agenda



ALBERTO
Eusko Jaurlaritzaren Deialdeko Batzordea
Eusko Jaurlaritzaren Deialdeko Batzordea



am2 - Eusko Jaurlaritzaren Deialdeko Batzordea



ESTILISTA EVA ARDINES
Eusko Jaurlaritzaren Deialdeko Batzordea
Eusko Jaurlaritzaren Deialdeko Batzordea

Motorzaleek hitzordua izan dute Larrabetzun

Herri txikia bada ere, Larrabetzun asko dira motorretarako zaletasuna dutenak. Motorzaleen kontzentrazioa antolatzea aspalitik buruan eduki duten ideia da, eta aurten animatu dira aurrera eramatera. Xaker Kirol Zerbitzuak eta Larrabetzu Racing elkarteak Motorzaleen Kontzentrazioa antolatu zuten lehenengo aldiz, irailean 18an.

Ekitaldian 50 motorrek eman zuten izena, eta guztira, 100 lagun inguruk hartu zuten parte egun osoan zehar egin ziren ekintzetan. Batzuk Txorierrri eta Bizkaiko zenbait herritatik etorritako motorzaleak izan ziren; eta beste batzuk, jakin-minak bultzatuta hurbildu ziren ekintzetara.

Goizean 55 kilometroko txangoa egin zuten, ibilbide-orria hau zela: Larrabetzu – Morga – Gerekiz – Errigoiti – Forua – Paresi – Arrieta – Gamiz – Larrabetzu. Herrira itzuli eta plazan, ikusgarri jarri zituzten motorrak. Besteak beste, motor klasikoak, modernoak eta krosetako motorrak ikusteko aukera egon zen bertan. Tabernetatik ibili ostean, herri-bazkaria izan zuten. Bazkaria Patxi Larruzea sukaldariak prestatu zuen, eta mahai inguruan 55 lagun batu ziren. Larruzeak marmitakoa prestatu zien

Argazkia: Urko Lasarte



motorzaleei.

Bazkalostea Funkers jazz taldeak girotu zuen, eta arratsaldean Dj bat ibili zen musika jartzen.

Sariak

Strip-teasea motorzaleen kontzentrazioetan faltatu ezin den ekitaldia da, eta Larrabetzuko ez zen salbuespena izan. Gauean emakumezkoen zein gizonezkoen strip-teasea izan zen. Ekitaldiak eztabaida sortu zuen, eta antolatzaileek denetarikoa kritikak jaso zituzten, “onak eta txarrak”.

Beste alde batetik, hiru sari banatu ziren motorzaleen kontzentrazioan. Lehenengoa Patxi Larruzea sukaldariari eman zioten, prestatu zuen bazkari goxoa-

gatik; eta bigarrena Unai Ortizek jaso zuen. Ortizek 1966. urteko vespa eraman zuen ekitaldira eta honi “motorrik politena eta zaharrena” saria eman zioten. Ignacio Mujika, Javier Barrenetxea, Eneko Dañobeitia eta Gabirel Egiluz segurtasun-neurriez arduratu ziren goizean egin zuten ibilalditxoan, eta horiei ere saria eman zieten.

Antolatzaileak oso pozik dabilta lortutako emaitzarekin, eta esan diguten moduan, prest daude motorzaleen kontzentrazioa datozen urteetan ere antolatzeko. “Oso gustura ibili gara guztiok, eta parte-hartzaileengandik entzun ditugun hitzak eta Txorierrin halako ekitaldirik ez dagoela kontuan hartuta, antolatzen jarraitzea me-rezi duela uste dugu”.

“Kontzentrazioan 50 motorrek eman zuten izena, eta 100 lagun inguruk hartu zuten parte egun osoan zehar egin ziren ekintzetan”


LIBRERIA SONDIAK
LIBURUDENDA

ARTE EDERAK ISKULANAK, E.A.

JASOZ MANGA! TAVIA ANTON

Katalanak, basqueak, galiziarak, portugaldarrak, alemanak, ingelesak, frantsesak, italiarrak, japoniarak eta arabierak

Milak Zuzen, 21 Tel. 7 Euzko 94 499 1633
48100 SONDIA (Bizkaia)

Libreria Sondiak

Barrio Arrieta, 100 48100 SONDIA

Raya Marjaret Marín

LIBRERIA SONDIAK

ATARIKARI

Libreria Sondiak, 48100 SONDIA

Teléfono 94 499 1633

ASESORIA

Lra. Fernando Aguirre, e.l.

Milak Zuzen, 21

Tel: 94 499 1633 Fax: 94 471 0618

48100 SONDIA (Bizkaia)

Sandoni (Zamudio)

Irailaren 2a, eguaztena. Sandoni Eguna
10:00: Txupin nagusia
11:30: Mezea, ermitan. Ostein, omenaldia
auzoko edadekoei

17:00: Mus Txapelketea
18:00: Jaialdia, gaztetxoentzat: poniak, zekorrak...

20:00: Txitxi-burruntzia
22:00: Dantzaldia, Txinparta taldeagaz
Irailaren 3a, eguna. Sandonitxu Eguna
11:30: Mezea, ermitan. Ostein, euskal kankak

12:00: Txakolinaren dastatzea
20:00: Idi-probak
21:30: Txitxi-burruntzia
22:00: Dantzaldia, Txinparta taldeagaz.
Goizaldean, txokolatadea

Andra Mari (Erandiogoikoa)

Abuztuaren 14a, barikua
22:30: Kale antzerki piroteknika
00:00: Erromeria, Itziarren semeak taldeagaz

01:30: + ke musika diskoparty
Afaltzeko: Txorizoa taloagaz, txosnetan
Abuztuaren 15a, zapatua. Andra Mari Eguna

Goizean: Azoka, dantzak, mezea...
Arrastian: Idi probak, bertsolariak, txalaparta erakustaldia, erromeria eta trikitixa
Trikitixa egun osoan zehar egongo da.
Taloa eta txorizoa gura beste eskainiko dira txosnetan, txakolin edo sagardo gozoagaz

Jaiak, bor-bor Txorierrin

Jaietan gagoz eta Txorierrin, herriz herri, auzoz auzo, erromeriak, lehiaketak eta bestelako ekintzak egiten dira. Hona hemen adibide batzuk



San Bartolome (Zamudio)

Abuztuaren 23a, domekea. San Bartolome bezpera

17:00: Bolandera nagusia
17:00: Mus Txapelketea
20:30: Txitxi-burruntzia eta ardaua, doan.
Erromeria, Dantza Alai taldeagaz

Abuztuaren 24a, astelehena. San Bartolome Eguna

12:30: Mezea, ermitan
12:30: Makailaoa Pil-pilean Txapelketea
12:30: Omenaldi-kopaua auzoko edadekoentzat, trikitilariak girotua
13:30: Makailao kazolen aurkezpena
19:00: Idi-probak: Lañe, Jose Mari Urrutia eta Jose Angel Bilbaoren buruak.

Ostein, erromeria Dantza Alai taldeagaz
01:00: Txokolatadea eta gau-dantzea

Abuztuaren 25a, martitzena. San Bartolome txu

12:30: Mezea, ermitan
13:30: Umeentzako jolasak. Sokatira: emakumeak gizonen kontra. Trikitilariak girotua.

19:00: Zaldi desafioa: Ekaitz Basaras eta Xabier Vidaurrezagaren zaldiak

20:00: Patata Tortilla Txapelketea. Ostein, erromeria Dantza Alai taldeagaz

24:30: Mozorroak
01:30: Txokolatadea, gau-dantzea eta jai amaiera



Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Electrolux-enak eragutik

Erakutsi eragutik

Plakak eragutik

Arazoak eragutik...



902 54 08 54

www.arlan.biz

Santa Kurtze (Sondika)

Irailaren 11, barikua

24:00: Kontzertuak: Akerbeltz + Pog Mo Thom

Irailaren 12a, zapatua

10:00: Kalejira, Ipar Elaiak txistulari alkar-teagaz

10:30-13:00: Haurrentzako VI. Marrazketa eta Pintura Lehiaketea

10:30-14:30: Haur eta gazteentzako parkea

14:00: Marrazketa eta Pintura Lehiaketearen sari banaketa

17:00: Gorka Fernandezen omenezko futbol partida

19:30: Kale antzerkia: *El pisito*, Trapu Zaharra taldearen eskutik

24:00: Dantzaldia: Mahixan + Hesian + Amaiur

Irailaren 13a, domekea

10:00: Kalejira, Ipar Elaiak txistulari alkar-teagaz

10:30-14:30: Haur eta gazteentzako parkea

18:00: Dantzen agerraldia, Gorantzai-



Pog Mo Thom taldea

leak dantza taldearen eskutik

Irailaren 14a, astelehena

10:00: Kalejira, Trikitixa Xabier taldeagaz

12:30: Mezea, Santa Kurtze ermitan eta ohorezko aurrekua

18:30: Yustilandia Show: magia, malabarismoak, pailazoak...

Larrondo (Sondika)

Abuztuaren 28a, barikua

18:00: Txupinazoa eta ikurrina jasotzea

18:00: "Eletxolerri" II. Torneo: Sondika vs. Derio

19:30: Umeentzako pelikulea

21:30: Tortilla Txapelketearen aurkezpena

23:00: Berbenea, Baleike taldearen eskutik

Abuztuaren 29a, zapatua

14:30: Herri-bazkaria. Ostein, Mus, Tute eta Briska Txapelketak

18:00: Asier Kidam magoaren saioa

22:00: Mozorro festa

23:30: Erromeria, Arizgoiti taldeagaz

Abuztuaren 30a, domekea

11:30: Mezea eta ohorezko aurrekua

13:00: Kopaua, nagusientzat

14:00: XX. Piper Txapelketea

14:00: Paella Txapelketearen plateren aurkezpena

17:30: Eletxolerri II. Torneo: Loiu vs. finalerdia irabazlea

18:00: Umeentzako berbenea, Jakin eta Jolas taldeagaz

22:00: Jaien amaiera



Santimami (Zamudio-Derio)

Abuztuaren 16a, domekea

10:00: Txupin nagusia

14:30: Herri-bazkaria

18:00: Umeentzako jokoak, Azkona taldeagaz

21:00: Sardina jana

22:00: Gau-dantza, Lotxo taldeagaz

Abuztuaren 17a, astelehena

10:00: Kalejira, txistulariakaz

12:00: Mezea, ermitan

14:00: Sukalki Txapelketearen aurkezpena Bertokoko trikitilariak goiza giro-tuko dabe

16:00: Mus Txapelketea

18:30: Pottokak, basurdea harrapatzea eta umeentzako zekorketea, Gorritiren eskutik

20:30: Tortilla Txapelketea

21:00: Txitxi-burruntzia

22:00: Gau-dantza, Arizgoiti taldeagaz

24:00: Sorgina erretzea eta txokolatadea

Abuztuaren 18a, martitzena

12:00: Mezea, ermitan

13:00: Kopaua, auzoko nagusientzat

Jai-amaiera eta agurra



Mauritaniara bidaia, Txorierritik

Nouakchott Mauritaniako bihotza da eta 3.047 kilometro dago Bilbotik. Zelai berdeak hareazko ozeano bihurtzen doaz 3.047 kilometro horietan zehar, eta eguraldi hezeak lekua egiten dio idorrari... Horrez gain, kilometro mordo horietan erabat ezberdinak diren kultura bi uztartzen dira; bizitzeko modu ezberdin bi. Asier Onaindiak, Xabier Expósito, Aritz Bizkarrak eta Jon Goikouriak aipatutakoaren fede eman nahi dute, eta horretarako, abentura ikaragarri ba-

Gazteek lur orotako ibilgailu errusiar bi erosi dituzte; Lada Niva bi, hain zuzen ere. Vladimir Aritz eta Jonen autoak, esate baterako, 20 urte ditu eta iruditu ez arren, ondo baino hobeto dabil. Bidaiaren xehetasunak dituen dossierra ere idatzi dute abenturazaleek eta hori besapean zutela, leku batetik bestera ibili dira diru-laguntza bila. "Krisia dela eta ez dela, traba asko jarri dizkigute instituzio gehienek. Dena galduta zegoela zirudienean, ekonomikoki lagundu digu



Testua / argazkia:
Jon Goikouria

tean murgilduko dira abuztuan. "Bidaia-bitakoran" Nouakchott hartu dute helmugatzat, eta hilabete zehar Espainia, Marokoko Sahara eta Mauritania zeharkatuko dituzte autoz.

Bidaia egiteko ideia pasa den urtearen amaierako arratsalde batean bururatu zitzairen. Afrikara joateko proposamena Aritzek bota zuen eta bost segundo inguruan pentsatu ostean, "bai, noski" erantzun zioten lagunek. Bidaiari itxura ematen hasi zitzaizkion astiro-astiro.

Sondikako Udalak". Era berean, abenturari buruzko argazki-erreportajea eta dokumentala egingo dute, Txorierri bueltatu bezain pronto erakusketaren bat antolatze-ko.

Gainontzeko eginbeharrak prest dituzte: informazioa hartu dute, beharrezko txertoak hartu dituzte eta, nola ez, bidaiaren dimentsio izugarriak eta etor daitezkeen ondorioak barneratu ere egin dituzte. "Esperientzia ahaztezina izatea espero dugu".

Jokalariak hartzeko kanpaina zabaldu du Hegalariak taldeak

Hegalariak areto-futbol Sondikako taldeak 14 urte daramatza federatuta, eta Bizkaiko Lurraldeko Lehen Mailan jokatzen du gaur egun. Taldeak jokalaria behar ditu, eta datorren denboraldiari begira, kide berriak hartzeko kanpaina zabaldu dute. Sondikoztarrek kirola aterpean egiteko aukera eta oso giro ona eskaintzen dizkiete areto-futboleko jokatu nahi duten guztiei.

Beste alde batetik, Hegalariak taldeko jokalariek epaile-lanak egiten dituzte txapelketa hauetan: "Sondikako Udala" Areto-futbol Txapelketa, "Sondikako Udala" Frontenis Txapelketa eta "Txorierriko Mankomunitatea" Frontenis Txapelketa. Era berean, hiruko torneo bi antolatzen dituzte urtean zehar, eta Gabonetan Pedro Espesoren oroimenezko partida egiten dute.

Taldera sartzeko interesa dutenek telefono honetara deitu behar dute: 610 20 78 14 (Oskar); edo mezua agindu, helbide elektronikoko honetara: hegalariak@kgzunea.net.

Txorierri sailkapeneko lehena jarraitzen du

Aurrekoetan esan bezala, Harri-zulatzailleen Euskal Herriko XI. Ligako saioak egiten dabiltza hainbat herritan. Txorierri taldeak hasiera ezin hobea eman zion Ligari eta lehenengo hiru probak irabazi egin zituen. Baina aurkakoak ere gogotsu dabiltza eta Txorierriko mutilek bigarren postuarekin konformatu behar izan dute Muskizen, Galdamesen, Barakaldon eta Santurtzin izan diren probetan. Hala ere, gure mutilek oso marka onak lortu dituzte, eta horiei esker, lehenengo postuan jarraitzen dute Ligako rankingnean, 45 puntu dituztela. Bigarren postuan Gallarta taldea dago 41 punturekin.

Ligako hurrengo proba abuztu amaieran egingo da, eta bitartean Txorierri taldeak Burdinezko Harri-zulatzailleak Txapelketako probetan hartuko dute parte.



Hotel Jatorria Aretxarte
Tecnologi Parka - Oñate, 300
48970 ZAMUDIO - (GIZKARIA)
Telefonoa: 94-403 08 00
Faxa: 94-403 08 01
e-mail: hotel@jatorria.com
e-mail: reserva@jatorria.com
www.jatorria.com



CONCEPCIÓ PEREZ PASOT
LARRERU LARRERU
BIOKIMUNIA ANIZKOZULATZAILEAN - LA ARRIKOLATZAILEAN
Poligono Tamaritagoa 17-6-5
48970 ZAMUDIO - (GIZKARIA)
e-mail: concepcion@vertigo.com
Tel. 94-403 22 59 - Fax 94-403 22 34



TALLERES OSKARI 2
BIOKIMUNIA ANIZKOZULATZAILEAN - LA ARRIKOLATZAILEAN
Poligono Tamaritagoa 17-6-5
48970 ZAMUDIO - (GIZKARIA)
e-mail: oskari@oskari.com



LUZ ZAMUDIO
BIOKIMUNIA ANIZKOZULATZAILEAN - LA ARRIKOLATZAILEAN

CONCEPCIÓ PEREZ PASOT
LARRERU LARRERU
BIOKIMUNIA ANIZKOZULATZAILEAN - LA ARRIKOLATZAILEAN

CONCEPCIÓ PEREZ PASOT
LARRERU LARRERU

INIGO RARCFNA
BIOKIMUNIA ANIZKOZULATZAILEAN - LA ARRIKOLATZAILEAN



BIOKIMUNIA ANIZKOZULATZAILEAN - LA ARRIKOLATZAILEAN
Poligono Tamaritagoa 17-6-5
48970 ZAMUDIO - (GIZKARIA)
e-mail: concepcion@vertigo.com



Ahuntz-esnezko izozkiak, Loiuko Azokaren nobedadea

Uztaillean, Azoka Ekologikoa egin da laugarren aldiz Elotxelerrri auzoan (Loiu). Azokan 19 ekoizle ekologikok hartu zuten parte, eta aurkeztu zituzten produktuen artean hauek aipa ditzakegu: barazkiak, gazta, sagardoa, ardoa, txakolina, olioak, eztiak, mermeladak, hestebeteak, haziak eta landareak. Eguraldia lagun izan genuen eta oso egun polita irten zen. Bero handiegia egin zuen, beharbada, eta horregatik,

izozki-postua arrakastatsuenetariko bat izan zen. Ahuntz-esnezeko izozkiak azokaren aurtengo edizioaren berritasuna izan dira, eta Elotxelerrira hurbildu zirenek zapore askoko izozkiak dastatzeko aukera izan zuten. Horrezaz gainera, pintxoen dastatzea ere egon zen: patata tortilla, oilaskoa ogi arrailetan pasatua, gazta irasagarrekin, eta urdaiazpiko eta kalabazinezko biribilkitxoak, besteak beste.

Barraketan ere euskaraz

Barrakek umeei gozarazten die edozein herriko jaietan, eta Txorierrin ere ezin dira falta. Hala ere, barraketan topatzen dugun informazioa gaztelania hutsean agertzen da gehienetan. Euskara Zerbitzutik kartel batzuk banatu dira euskaraz zein gaztelaniaz, barraken nagusiek euren negozioan jar ditzaten. Karteletan oinarrizko informazioa agertzen da: bidaiek zenbat balio duten edo arauak, esate baterako. Euskara Zerbitzuak kartelak agindu ditu udaletxe guztietara, horiek barraken arduradunei eman diezazkieten. Baten batek bestelako informazioa barrakan jartzeko beharra badu, hori ere euskaratuko diote.

Oker zuzenketa

Aurreko alean Miriam Ruiz Sondikako moda diseinatzaileari egindako elkarriketa argitaratu genuen 14. eta 15. orrialdeetan. Gaztearen bigarren abizenari Fria dela esan genuen, baina informazioa ez da zuzena. Neskak Miriam Ruiz Briz du izena.

Artetxe eta Hormaetxe absolbitu dituzte

Alaitz Artetxe lezamarra eta Arkaitz Hormaetxe zamudioztarra urtarrilean epaitu zituzten Madrilgo Auzitegi Nazionalan. Hormaetxeari erakunde armatu baten kide izatea leporatu zioten eta fiskalak eskatu zuen berarentzat bederatzi urtez preso edukitzeko eta hamar urtez kargu publikoak betetzea debekatzeko. Artetxeri erakunde armatu bati laguntza ematea egotzi zioten eta fiskaltzak eskatu zituen berarentzat sei urte eta erdiz preso edukitzeko, 3.920 euroko isuna jartzeko eta hamabi urtez erabat gaitasungabetzeko.

Txorierritarrek uztailean jakin izan dute epailearen ebazpena. Alfonso Guevara epaileak absolutu egin ditu gazte biak. **AIKOR!** aldizkariaren uztaileko alea itxi orduko, ez dugu aukerarik izan Guevarak epaian eman dituen argudioak ezagutzeko.

Lezamako arau subsidiarioak, baliogabetuak

Lezama Bizirik auzo elkarteak jakinarazi duenez, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak Lezamako arau subsidiarioak baliogabetu ditu, ingurumen-inpakturaren ikerketan eta ebaluazioan irregulartasunak egon direlako. Bizkaiko Foru Aldundiak Espainiako Auzitegi Nagusian helegitea sartzeko aukera du.



GAMINIZ
JATETXEA

INGURUMEN
SOSIALA
GAMINIZ JATETXEAREN

Download the Gaminiz app
on the App Store or Google Play

www.gaminiz.com

Accounting
Accounting, Inc.
1-800-451-1234

Saleh Askoffzaga
Accounting, Inc.
1-800-451-1234

Accounting, Inc.
1-800-451-1234

Accounting, Inc.
1-800-451-1234



BIDE GORRI

Fitxak eta liburuak jasotzeko: fitxak@bidegorri.eus
www.bidegorri.eus

Fitxakak, Gorka, 1
 48940 Leizor (Bizkaia) Tel. 94 499 19 19



Nici un producător nu
 este atât de încrezător,
 întru cât, întru cât, întru cât.
 Plătește acum!

Gramophone's "M" is made in
 GREAT BRITAIN (ENGLAND)

1994 TOYOTA CAMRY

EXTRA LTA LAMINATED GLASS

Laminated glass is made of two layers of glass with a plastic interlayer. This makes it stronger and safer.

Erromes-kopurua biderkatzea espero dute Lezamako aterpearen arduradunek



Erromesentzat zabaltu zuten Lezamako aterpe berria ekainean, Uribarri Topalekuan. Joan den urtera arte, eskola ondoan jarritako obra-txabola baten hartzen zuten ostatu erromesek, eta azpiegitura berriak zerbitzua hobetzeko aukera ematen du. Aterpean 22 lagun hartzeko lekua dago, eta bertan komunak, sukaldea, garbigailua, mikrouhina, arropa zabaltzeko lekua eta bizikletak uzteko tokiak dago. “Oso pozik gaude, eta aterpea aurretik ezagutzen zuten erromesek ere nabaritu dute aldea”, esan digu Carlos Erazo Done Jakue Bidearen Bizkaiko aterpeen arduradunak.

Natalia eta Tatiana Bratislavakoak dira eta aterpera ailegatu berriak direla harri-patu ditugu. “Berria da? Ondo dago, eta sukaldeak denetarik du. Behintzat ohatzea dugu lo egiteko; Zarautzeko aterpean lu-rean egin behar izan genuen lo”.

Iaz 1.080 erromes pasatu ziren Lezamako aterpetik, eta aurten kopurua biderkatzea espero du Erazok. “Edukiera

bikoitza dugu; lagun gehiago hartzeko aukera. Eta horrek herriko komertzioari ere ekarriko dio onura”.

Informazio-gida

Izan ere, Bidea eta aterpeei buruzko informazioaz gainera, Lezaman bertan dituzten gastronomia-aukeren berri ere ematen diete erromesei. Horren haritik, Zorritzetan euskara elkarteak informazio-gida atera du euskaraz zein ingelesez. Gidan oinarritzko informazioa topa dezake bidaia-riak: jatetxeak, janari-dendak, farmazia... Era berean, euskararen nondik norakoak azaldu dituzte bertan, eta euskarazko hitz batzuk ere idatzi dituzte, etorkinek ezagut ditzaten. Gida herriko komertzio guztietan eta aterpean banatu dute.

Beste alde batetik, aterpea astebetean itxita egon dela aipatu beharra dago. Uztailean zimitzak topatu dituzte han eta lokala fumigatu behar izan dute. Aterpea martxan dago berriro ere.

Luz Interna kontzertua irailean egingo dute

Tirri-Tarra Pasai San Pedroko fanfarreak eta Txorierriko hainbat abesbatzak *Luz Interna* saioa antolatuta zuten joan den uztailaren 4rako. Ekitaldia Larrabetzuko futbol-zelaian egiteko asmoa zuten, Mankomunitatearen 20. urteurrenaren haritik. Hala ere, euria zela-eta bertan behera utzi behar izan zuten kontzertua. **AIKOR!** aldizkariak jakin izan duen bezala, kontzertua irailaren 26an, 21:30ean, izango da Larrabetzuko futbol-zelaian.

Kultura ekitaldiak, nagusi Gazte Egunean

Hori Bai Larrabetzuko gaztetxeko neska-mutilek San Ignazio ospatuko dute uztailaren 31n; eta Gazte Eguna, abuztuaren 1ean. Egun horietako, ekitaldi hauek antolatu dituzte:

Uztailaren 31, San Ignazio

Goizean: Txistulariak eta trikipoteoa

Eguerdiari: Herri-bazkaria

22:00: Erromeria, Ohiergi taldearen eskutik

Abuztuaren 1a, Gazte Eguna

Goizean: Murala eta trikipoteoa

15:00: Bazkaria. Ostean, kontzertuak kalean

19:00: Olinpiadak

22:00: Mani-kalejra eta ekitaldia

24:00: Kontzertuak: Ekon, Des-kontrol eta Maitips

Ardo mundua hizpide edukiko dute Sondikan

Irailaren 15etik 20ra bitartean Enologia Astea egingo dute Sondikan. Egitasmoaren barruan lau ekitaldi nagusi antolatuko dira: ardo-dastatze bat, zinea, txango bat eta ardo azoka bat. Ardo-dastatze ikastaroa irailaren 15ean, 16an eta 17an izango da, 19:00etatik 21:00etara, Kultura Etxean. Ikastaroan ardo zuriak eta ardo gorriak dastatzeko aukera egongo da, eta horrezaz gainera, ardoa eta jakien arteko elkartearen gaineko saioa ere egingo da. Orotara hiru ikastaro izango dira, eta bakoi-tzak bost euro balio du; hurrak egiten badira; hamar euro ordaindu beharko da. Izena emateko epea irailaren 1etik 4ra bitartean izango da, 17:00etatik 19:00etara, Gaztetxean.

Irailaren 18an, *Entre copas* filma emango da Kultura Etxean. Saioa 20:30ean izango da, doan. Hurrengo egunean, irailaren 19an, txangoa egingo dute Laguardiara. Bertan Casa Primicia upeltegia ezagutuko dute. Kasu honetan ere irailaren 1etik 4ra bitartean eman behar da izena, 17:00etatik 19:00etara, Gaztetxean. Azkenik, ardo azoka antolatu da irailaren 20rako. Azoka Txorierrri etorbidean kokatuko da eta 10:00etatik 15:00etara egongo da zabalik.

OBRAS Y REFORMAS
CONSEJO REGULADOR DE LA UVA DE LA D.O. Penedès
Gorrotza
I. LARRABETZUKO ATERPEA
Gazte Egunaren Aterpea
I. LARRABETZUKO ATERPEA
Gazte Egunaren Aterpea
I. LARRABETZUKO ATERPEA
Gazte Egunaren Aterpea
I. LARRABETZUKO ATERPEA
Gazte Egunaren Aterpea

Gazte Egunaren Aterpea
I. LARRABETZUKO ATERPEA
Gazte Egunaren Aterpea
I. LARRABETZUKO ATERPEA
Gazte Egunaren Aterpea
I. LARRABETZUKO ATERPEA
Gazte Egunaren Aterpea
I. LARRABETZUKO ATERPEA
Gazte Egunaren Aterpea

Garmendia
ardoak
I. LARRABETZUKO ATERPEA
Gazte Egunaren Aterpea
I. LARRABETZUKO ATERPEA
Gazte Egunaren Aterpea
I. LARRABETZUKO ATERPEA
Gazte Egunaren Aterpea
I. LARRABETZUKO ATERPEA
Gazte Egunaren Aterpea

Iñaki Perurena, harrijasotzailea

“Semeak nirekin saioak egingo aspaldian utziko nion harriak j

Oso gizon lanpetua da Iñaki Perurena. Izatez harakina da, baina aktore, idazle eta bertsolari ere aritu izan da. Dena den, ospe gehien eman dion lanbidea harrijasotzailearena da. Orain Inaxio semearekin egiten ditu saioak Euskal Herritik ez ezik, kanpotik ere. **AIKOR!** aldizkariak Loiuko jaietan harrapatu du.

Argazkiak: Ixone Urrutikoetxea



“ Kanpoan ez ezik Euskal Herrian bertan ere jende askok ez ditu harriaren nondik norakoak gehiegi ezagutzen ”

“ Gauza pilo bat egin behar izan ditut nire bizitzan, baina ez dut inoiz arazorik izan, gauza berriak egitea gustatzen zaidalako ”

Zelan Loiun?

Ondo. Nire ustez, gustura ibili zen jendea giro polita sortu zelako. Hala ere, bero dezente zegoen.

Azken bolada honetan semearekin aritzen zara, eta Loiun ere Inaxiorekin batera egin zenuen saioa. Zergatik?

Ni aspaldian nabil harriak jasotzen, eta semeari ere gustatzen zaio. Elkarrekin joaten gara, bion artean saio politagoak egiten baititugu. Bera etorriko ez balitz, aspaldian utziko nion harriak jasotzeari.

Harreman polita duzue, beraz. Ez dago

lehiakortasunik zuen artean?

Ez, zelan egongo da, ba!

Zelan ikusten duzu semea? Etorkizunari begira, zure markak gainditzeko gauza izango dela uste duzu?

Semeak 25 urte ditu, eta lehenengo harria bost urte zituela jaso zuen. Galdera bera egin ziguten garai hartan, eta ordutik hona hainbat aldiz egin digute. Inaxio ondo dabil, baina ez dakit...

Hainbat errekor dituzu. Esanguratsuak dira zuretzat?

Errekor guztiek dute garrantzia; bestela, ez

lirateke errekorrak izango. Ahalegin handi eta entrenamendu gogorraren ondorioa da. Marka onak ez dira kasualitatez etortzen. Nik aspaldian lortzen nituen errekorrak, baina orain 52 urte ditudala, ez dut markak lortzeko adinik. Gaur egun, aldiz, erakustaldiak egiten ditut harriak jasotzeko ilusioari eusten diodalako. Gainera, jendeak ondo pasatzen du.

Errekorrak lortzeko ez duzu adinik, baina jarraitzen duzu harriak jasotzen. Noiz arte?

Ez dakit, ilusioak eta gorputzak laguntzen

AIKOR! Aldizkari
Aldizkari Bertsolarien

Donostia, 1. Solairu 48 100 Donostia
Tel: 94 454 55 55
www.aikor.eus

AIKOR! Aldizkari
Aldizkari Bertsolarien

Donostia, 1. Solairu 48 100 Donostia
Tel: 94 454 55 55
www.aikor.eus

AIKOR! Aldizkari
Aldizkari Bertsolarien

Donostia, 1. Solairu 48 100 Donostia
Tel: 94 454 55 55
www.aikor.eus

ez balitu, asotzeari”

nauten bitartean.

Harriak jasotzea euskal kirola da, baina zu kanpoan ere ibilia zara. No-lako harrera izan duzu Euskal Herri-tik kanpo?

Denetarik dago, hemen eta kanpoan. Jendeak jakin badaki euskal kirola dela, eta errespetu handia adierazten dute.

Harriaren museoa egin nahi duzula irakurri dut. Zelan doa ekimena?

Beste norbaitek asmatutako izena da hori, baina egia da harriaren inguruan zerbait egiteko ilusioa izan dudala aspalditik. Izan ere, kanpoan ez ezik Euskal Herrian bertan ere jende askok ez ditu ezagutzen gehiegi harriaren nondik norakoak. Gauza batzuk egiten gabiltza gaia argitzeko asmoarekin, baina ez da erraza: igandeetan telefonoz deitzen didate museoa ikusi nahian, baina ezin naiz astebururo museoan gelditu azalpenak-eta emateko.

Harakina, harrijasotzailea, idazlea, aktorea, bertsolaria... Hainbat lanbi-de izan dituzu, ezta?

Baserritar batek hainbat lan egin behar ditu. Nik ere gauza pilo bat egin behar izan ditut, eta ez dut inoiz arazorik izan, gauza berriak egitea gustatzen zaidalako. Ahalik eta ondoen egiten saiatu naiz eta kito!

Telebistan ere aritu zara, Goenkale saioan, batez ere. Baduzu beste gauzaren bat egiteko asmorik?

Ez, ez. Dagoeneko nahiko lanpetuta nabil, baina ez dakit. Gauzak sortu ahala egingo ditut. Egunez egun bizi izatea gustatzen zait, eta ez dakit bizitzak hemendik aurrera zer eskainiko didan. Bizitzen saiatzen naiz, besterik ez!

Nabarralde elkartearen kidea zara. Zer da Nabarralde?

Euskal Herriko eta Nafarroako historia ezagutarazten ahalegintzen den elkartea da. Historia historia da; arazoa da zelan kontatzen den.

Zehatz-mehatz

Izena: Iñaki Perurena

Jaioterria: Leitza, Nafarroa

Jaiotze urtea: 1956

Lanak: Harakina, aktorea, idazlea, bertsolaria, harrijasotzailea.

Errekorrak:

–100 kiloko harria 1.000 aldiz jaso zuen 1999an. Bost ordu eta lau minutu eman zuen.

–Esku batekin 267 kiloko harria jasotzeko gauza izan da; esku biek, 320 kilokoa.

Egitasmoak: Harri-jasotzea ezagutarazi nahi du Euskal Herrian zein kanpoan, eta horregatik, museoa sortzen dabilta bere etxean.



AURREMATRIKULA ZABALIK!

BERTOKO SOINU TRESEN ELKARTEA
2009/2010 ikasturtea

- TXALAPARTA
- ALBOKA
- TRIKITIXA
- GULTZAINA
- PANDEROA

Orain emaitza. Gure gurea bertokosoinutresnenelkartea@gmail.com

615 740 670
bertokosoinutresnenelkartea@gmail.com

BERTOKO SOINU TRESEN ELKARTEA



Baloiari lotuak

Bizia KEk eta CD Sondikak
Sondikako Futbol Campusa antolatu
dute aurten seigarren aldiz



“Ez diegu azalpen
teorikorik ematen umeei;
bestela, aspertu egiten
dira. Baina Messi aurretik
ere futbola egon dela
erakutsi nahi diegu”

lentzat da eta aurten lehendabiziko aldiz
ez da neskarik egon.

Aitor Mujika CD Sondika taldeko koordinatzailea dugu egitasmoaren sortzailea. Koordinatzailea izateaz gain, Bizia KEaren sortzailea ere izan zen, eta azken 15 urteotan entrenatzaile aritu da CD Sondikako haur taldean. “Futbolzale amorratutzat” jotzen du bere burua, eta horregatik bururatu zitzaion Campusa antolatzea. “Umeen denboraldia laburra da, eta duela sei urte ekainean ere entrenatzea erabaki genuen. Umeak pozik zebiltzala ikusita, ikastaroa egitea pentsatu nuen”. Lehenengo urtean 25 mutil izan ziren, baina gaur egun Campusean 70 ume biltzen dira urtero. “Ezin dugu gehiagorik sartu, lekurik ez dugulako, ez aldageletan, ez zelaian”.

Campus 16:00etan irekitzen da. Gazteak Sondikako Kultur Etxera joaten dira bideoren bat ikustera. “Futbolari buruzko kultura erakusten diegu: agintari, jokalar edo entrenatzaile mitikoak, golak,

Oporrak heltzen direnean, udalekuen garaia izaten da Txorierriko hainbat ume-erentzat. Hala ere, udalekuak goizez baino ez dira egiten, eta neska-mutiek arratsaldeetan ere jolastu nahi izaten dute aire zabalean. “Eta futboleant aritzen bagara, askoz hobeto!”, pentsa lezakete kirol horren zale batek baino gehiagok. Futbolak eta udalekuek Sondikako Futbol Campusean egiten dute bat. Aurten seigarren edizioa antolatu da ekainaren 29tik uztailaren 10era bitartean, Bizia KE eta CD Sondikaren eskutik, eta Sondika eta Lezamako udalen babespean. Ikastaroa 9tik 12 urtera bitarteko neska-muti-

jokaldiak, akatsak eta abar ikusten dituzte. Munduko eta Europako txapelketen laburpenak edo Athleticen historia ere jorratu ditugu, besteak beste. Batzuetan, bideoa eten eta azalpenen bat ematen dut. Ez diegu kontu teknikorik ematen; bestela, umeak aspertu egiten dira. Baina Messi aurretik ere futbola egon dela erakutsi nahi diegu, beste era batean jokatzeko zela...”.

Diziplina eta ohiturak

Bideoa ikusi eta gero, futbol zelaira joaten dira. Beroketak egiten dituzte bertan, eta ondoren taldeko zein banakako teknikak lantzen dituzte. Azkenean partida jokatzen dute. Baloia, beti protagonista. “Diziplina eta ohiturak umeak barnerraztea nahi dugu. Gainera, Campusak gazte txoen arteko harremanak ere bultzatzen ditu”. Aukera ona da, beraz, parte-hartzaile guztientzat: “Haurrek primeran pasatzen dute; horregatik, gurasoak ere pozik daude; eta klubaren ikuspuntutik ere oso onuragarria da, jokalaria gazteak futbolari buruzko oinarriak hartzen hasten baitira”.


Futbolaz aparte, irteerak antolatzen dituzte urtero Campusean: San Mames, Athleticen Lezamako kirol-instalazioak, Donostiako Aquariuma, Karrantzako Karpin parkea, Pozolaguako kobazuloak... Batzuk futbolari daude lotuta, baina beste batzuk ez. Berdin dio, “elkarrekin ibiltzeko eta futboletik apur bat urruntzeko asmoa” baitute bisitek. Azken egunean Sondika eta Lezamako alkateek diploma, talde osoko argazkia eta kamiseta bana oparitzen dizkiete parte-hartzaileei. Gero haiaiketakoa egiten dute guztiek: jokalariaiak, lau monitoreak, gurasoak eta alkateak.

Testua: Gaizka Eguskiza
Argazkiak: Aitor Mujika





Biodibertsitatea, haretx artean



Sanmartinbaso lorategi botanikoa irailean zabalduko dabe. Hemengo landarediaz ganera bost kontinenteetako zugatzak eta lorak ezagutzeko aukerea emongo deusku



Sanmartinbaso izeneko lorategi botanikoa hektarea biko altxor berdea da. Eta altxor hori Txorierrin bertan dogu; Lezaman, hain zuzen be. Lorategi botanikoa orain hiru urte Kima Landarak *garden center*ak abian jarritako proiektua da. Sanmartinbasoan dagoan harestia abiapuntutzat harturik, hemengo zugatzak, lorak eta zuhaixkak bost kontinenteetatik ekarritako espezie ez inbaditzaileakaz buztartu ditue.

Lorategiak Txorierrin antxina egozan basoetara eroaten gaitu ibilbide lasai eta atsegin baten zehar; baina, era berean, keinua egiten deutso mundu osoko florari. Hala, 200 urteko haretxak harmonian bizi dira Australia, Zeelanda Berri edo Txinako zugatzakaz. Paisaia ia mila espezie desberdinek apaintzen dabe: leizarrak, hurretxak, gorostiak, pagoak, sekuoiak, kaktusak, palmondoak, astigararak, Tasmaniako ira-





tzeak, azaleak, kameliak, arteak eta itsas pinuak..., bakar batzuk aitatzearren.

Basoak bitxiak be ezkututzen ditu. Ibilbidean ginkgo biloba zugatzagaz egiten dogu topo. Zugatz hori oso zaharra da; hain zaharra, eze dinosauroen sasoian be baegoan. Zuhandorra galtzeko zorian dagoan espeziea da, eta ha be miretsi geinke lorategian. Arduradunek omenaldi txiki bat egin gura izan deutsee Txorierriko txakolingileei, eta zugatz eta loren artean txakolina egiteko erabiltzen diran hiru mahatsondo mota landatu ditue.

Ikaztegi bat eta San Martin ermitearen lorratzak zugatzen artean nahasten dira. Lorategi japoniar batek ikutu exotikoa emoten deutso inguruari. Laster urmael bat egingo dabe, eta uretako lorak iminiko dira han. Baina hareek guztiak zuzenean ezagutzeko, Sanmartinbaso lorategi botanikora joan behar dogu. Ikastetxeentzat eta partikularrentzat bisitaldi gidatuak be egingo ditue lorategian. Aukerea irailetik aurrera izango dogu.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina



Zortzi Arreku

Gerentzia berria

Menutik eta karta berriak

Garatzen ari diren leku berriak

Aldizkariaren postuak agerian

Garatzen ari diren leku berriak

Aldizkariaren postuak agerian





Euskereak batu gaitu

Zelan esan, zelan azaldu... Bihotz barre-
tik jatorkuzan sentimenduek dinoskuena
esatea ez bada. Berton egon zinienok ondo
baino hobeto ulertuko deuskuzue.

Lagatzu Eguna-Euskal Jaiaren kroni-
kea egiteko eskatu deuskue, eta ez dogu
denbora askorik galduko hau kontatzeko:
azokeak, danborradeak, umeentzako joko
eta tailerrek, dantzari, txistulari, bertsolari
eta Bertokoko kideakaz egindako kaleji-
rak, harrizulataileek, bazkariak eta oste-
ko kanta saioak, umeentzako parkeak eta
erromeriak itzelezko egitaraua osatu ebe-
la. Sekulako parte-hartzea egon zala eta
eguna ezin hobeto joan zala. Eguna ez zala
posible izango Udalak emoten deuskuzan
dirua eta azpiegiturak izan ez bagendu-
zan. Herritarren, talde eta elkarten ezin-
besteko laguntza barik ez zala jairik egon-
go esateko.


Eguna gugaz ospatzera etorri zinienon
begiek kontatzen ebena, zuen ahotik en-
tzun eta barru-barrutik etozan berbak eka-
rri gura doguz hona. Hainbeste jente, hain
diferente, umeak, gazteak, nagusiak, eda-
dekoak, kalekoak edo baserrikoak, he-
mengoak eta hangoak. Zerk batu ete gai-
tu? Euskaldunak gara eta euskereak batu
egiten gaitu. Beharbada, holango espazio-
en beharra dogu danok. Hori da danok
bizi genduzan emozio momentuetan,

zuen zoriona jaso genduanean, zuetariko
gehienok esan zeuskuena. Eutsi egin be-
har deusagula horri, holango momentuak
pasatzeko eta gozatzeko beharra danok
sentitzen dogulako. Herritarren errekon-
zimendua eskertu gura dogu, eta gure tal-
dea arnasa hartzeko gune hori izaten ja-

rraitzeko prest dagoela adierazo. Aurten
hamargarrena izan da, eta guk mezua har-
tu dogu. Datorren urtean? Zeuona da ber-
bea. Laguntzeko prest?

*Testua eta argazkiak:
Lagatzu, Zamudioko euskera alkartea*





“Orduko denporak ondo gogoratzen dodaz”

Kirolak aparteko berezitasun bat hartu ohi dau uda aldean. Hor dogu Frantziako Tourra, eta iaz Olinpiadak izan ziran Beijingen. Aurten be kirola egiteko aukerea eukiko dogu geure herrietan. Kirola egiteko eta kirolaren ganean berba egiteko aukerea. “Kiki” Begoña korrikalariarengana jo dogu horretarako.



Testua: Amagoia Guezuraga
Argazkiak: “Kiki” Begoña

Jose Antonio Begoña Latxaga “Kiki” Zubi baserrian jaio zan 1938ko urriaren 16an. Bizitzea Zamudio eta Derio artean igaro dau: Zamudion bateatu eben eta lehen jaunartzea be egin eban bertan. Derioko eskolan ikasi eban eta Zamudioko futbol taldean jokatu eban. “Hamazortzi urte bete arte ibili nintzan talde horretan; hirugarren mailan egoan orduan. Anaia, Moni eta Roman Askolizagagaz jokatzen neban”. Korrika egiten Derion hasi zan, eta Deriora be ezkondu zan zamudioztar bategaz. **Noiz hasi zinan korrika egiten?**

Txikitatik, beti gustau jat karra egitea. Herriarteko lasterketak egiten nebazan. Santo Domingon, San Fausto jaietan, egiten zan lasterketea, esate baterako, lau aldiz irabazi neban. Hiru ogerleko eta sagardaua gaseoseagaz emoten eustezan saritzat. Soldadiskea Garellanon egin neban, eta sarriago korrika egiten hasi nintzan han. Hogeita bi urte nebazan orduan, eta 50 kiloko pisua neukan.

Eta soldadiskea amaituta?

Alfred Sagasigaz batera hasi nintzan entrenetan. Ha Etiopiako korrikalari bat zan,

bere herrian txapeldunordea izan zana. Fraideek Derion eben ikastetxean bizi zan. **Zein izan zan egin zenduan lehenengo lasterketea?**

Soldadiskatik etorri barria nintzan. Lasterketea Santa Maria Portugaleteko ikastetxeko pistan izan zan, eta nik abarkakaz egin neban korrika. Ostean, Jose Antonio Elola trofeoan egin neban debuta, Madrilen. Lasterketa hori 1960. urtearen inguruan izan zan Casa de Campon. Nik neure kabuz hartu neban parte proban. Aurrekoe-txea izeneko batek eroan ginduzan autobusez Madriler.

Nortzuk joan zinien?

Sei lagun: Sagasi eta biok, Deriotik; Garay, Mungiatik; eta besteak Zornotza, Santurtzi eta Barakaldokoak ziran. Bizkaiko Txapelketea nik irabazi arren, guztiak ginan hasi-barriak.

Zenbat kilometroko lasterketea izan zan?

Hamar kilometrokoa. Ni lasterketearen buuruan ninoian; eta nigaz, Sagasi eta Alvarez Salgado galegoa. Helmugara heltzeko 200 metro falta zirala haize-minak jo eustan. Sagasi niri laguntzera etorri zan, baina honelan esan neutsan: “Nik ezin dot. Joan aurrera eta irabazi zeuk!”. Ni baino apur bat lehenago heldu zan helmugara.

Handik hamabost egunera, profesionaletara pasatu ginan eta Espainiako Federazioagaz korrika egitera konbidau ginduezan. Ehun korrikalari inguruk hartu genduan parte lasterketan, eta Mariano Harok irabazi eban.

Non izan zan azken lasterketa hori?

Erretiroan, Madrilen. Jentetza handia egoan ikusten. Aurrean Haro eta beste lauzpabost korrikalari joiazan, eta ni bigarren multzoan ninoian. Akabuan hamargarren sartu nintzan. Han egon ziran portugesak, frantsesak, Mariano Haro, Fernando Aguilar, Maez... onenak! Eta eurekaz batera, Jose Antonio Begoña, “Kiki” ezizenekoa.

Nondik jatortzu ezizena?

Ba, ez dakit. Korrika hasi nintzanean, “aup Txiki!” esaten eusten, eta “Txiki” hori “Kiki” bihurtu zan. Halan lotu da.

Noiz egiten zenduzan entrenamenduak?
Beharretik etorri eta etxeko beharrak egin ostean. Igeltsero nenbilen Iñaki anaiagaz. Esnea eraitsi, behartxoak egin eta iluntzean Santi Mamiko landetan entrenetan nintzan; Larrondoko presatik, Egiliz baserritik. Hamalau edo hamabost kilometro egiten nebazan egunero; afizino handia neban.

Zein klubetan zara ibilia?

Madrilgo lasterketaren ostean, Getxoko Kirol Klubetik deitu eusten. Jose Luis Celaya zan entrenatzailea, eta bost urte emon nebazan han. Ondoren, beste sei urte inguru izan nintzan Vizcaya Klubean, Antonio Rojo presidentea zala. Eta akabuan, 20 urte emon nebazan Academia Almin. Zapatilak eta gura neban ekipajea emoten eustezan; eta urte amaieran, eskupekoa.

Lasterketak egiteagaitik ez eutsuen ordaintzen? Eta taldean egoteagaitik?

Ez. Ordaindu, kamisetetan publizitatea eroateagaitik ordaintzen eusten. Dana dala, bidaia eta otorduak ordaintzen eustezan, eta baimen osoa neban Guisasola dendan zapatilak erosteko.

Eta Getxoko taldean?

Pistako taldea zan hori; ekipo indartsua. Txandala emoten eusten.

Getxora joaten zinan entrenetan?

Ez, neure kabuz entrenetan nintzan, San Ignazioko pistetan. Neguan krosa egiten



neban; eta, martxotik aurrera, pista eta 3.000 metroko oztopo-lasterketea. Marka onak nebazan.

Elikadurea zaindu beharko zenduan, zelang jakiak hartzen zenduzan?

Barazki asko eta arraina. Amak suabe-sua-be egiten eustan okelea. Hirurogeita bat kiloko pisua neukan orduan, eta ez neban alkoholik edaten; ezta erreten be. Entrenetan gozatzen neban.

Noiz izaten ziran lasterketak?

Asteburuetan, normalean. Beharrak egin behar ziran etxean, eta esneak neuk erais-

tea gura izaten eban amak. Baina arreba nagusiaren senarrak beharra ikasi eban eta ganadua haren ardurapean ixten neban. Kanpora joateko aukerea euki neban. Hogeita zortzi urte nebazala, Bartzelonako Español Kirol Taldera joatea eskaini eusten, baina arreba txiki bi nebazan, eta aita eta anaia bat hil ziran...

Irabazitako sarietatik, zein da gehien gogoratzen dozuna?

Galizian lortutako urrezko medailea, Riazor estadioan. Amak hiru txuleta eta txokolatea sartu eustazan maletan bidaia horretarako. Beterano mailan be irabazi dodaz lasterketak: Elgoibar, Zaragoza, Santander... Estatu mailan hiru aldiz irabazi dot.

Eta gogoia izan arren, joan ez zaren lasterketea?

Batzuk egongo dira... Baina pena handia emon eustan Espainiako V. Txapelketara joan ezin izateak. Las Palmasen egin zan eta loba Iñakitxu han egoan soldadiska egiten. Baina hara joateko, aste osoa emon behar neban etxetik kanpo: sasoi hatan asterik behin izaten ziran hegaldiak.

Olinpiadetara joateko aukerarik?

Bai, Munichera. Gitxieneko marka batzuk bete behar ziran eta, ahaleginak egin arren, gitxigaitik lotu nintzan sailkapenetik kanpo. Materialak be ez ziran oraingoan modukoak. Pisteak, adibidez, hauts pista zan

“ San Fausto jaietan egiten zan lasterketea lau aldiz irabazi neban. Hiru ogerleko eta sagardaua gaseosagaz emoten eustezan saritzat ”

“ Debuta Jose Antonio Elola trofeoan egin neban, Madrilen, 1960. urtearen inguruan ”

“ Beharretik etorri, esneak eraitsi eta etxeko beharrak egin ostean, Santi Mamiko landetan entrenetan nintzan iluntzeetan ”

Hästens

denda
Cualidad innata
cheek

ARTEAGA koltxoi-denda

Deriska Sotilario • 94 454 51 47 • DERIO

“Gehien gogoratzen dodan saria Galizian lortutako urrezko medailea da. Amak hiru txuleta eta txokolatea sartu eustazan maletan”

“Municheko olinpiadetara joateko aukerea euki neban, baina gitxigatik lotu nintzan sailkapenetik kanpo”

“Dopinaren ganean ez zan gauza askorik entzuten. Batzuek esaten eben pastilla batzuk egozala, baina nik ez neban halakorik ikusi inoz”

lehen, eta orain gomazkoa da.

Nor joan zan Munichera?

Pepe Fernandez; Tokion be izan zan. Handik Olan egin zan Bizkaiko lehenengo krosera etorri zan. Hamabi kilometroko lasterketea izan zan, Ina Ibarrendoren landetan zehar. Helmugarako 500 metro falta zirala, Fernandezi aurea hartu eta neuk irabazi neban. Derioztar asko joan ziran lasterketea ikustera eta guztiok ilusino itzela izan genduan. Ondoren, zazpi aldiz irabazi neban Bizkaiko Krosa: Zornotzan, San Fuentesen, Gobelan...

Zelan joaten ziran lasterketetara?

Goizeko 8etan Bilborako trena hartu eta, San Nikolas elizan mezea entzun eta gero, joan behar neban herrirako trena edo autobusa hartzen neban. Bueltarako beti egoan lagun bat.

Eta zer gosaltzen zenduan halako egune-tan?

Frutea, txokolatea eta kafe esnea.

Gatz suertau jatzun lasterketarik?

Egia esateko, danetan ibiltzen nintzan nahiko ondo: Laredon, Pontevedran, Pauen... Iriarte doktoreak urtero begiratu eta kontrolak egiten eustazan Bilboko Kirol Etxean.

Paueko lasterketea?

Urtearen lehenengo lasterketea zan, abenduaren 8an. Isaac Rueda, Pepe Fernandez, Eduardo eta laurok gonbidatuta joaten ginan eta dana geunkan ordainduta, taxi eta guzti. Pauera zazpi urte jarraian joan nintzan. Hango Rene Jurdanok prestatzaile fisikotzat hartu gura ninduan, baina ez neban onartu. Ezkonduta nengoan eta familia neban.

Zelango prestatketa fisikoari jarraitzen zeuntsan?

Aritmendik, Mariano Harok eta Tomas Barrisek egindako ariketa-tercioak egiten nebazan. Egun bakotxean ariketa mota desberdinak egiten nebazan: 100 metroko 50 serie astelehenetan; korrika egin, martitzenetan... San Ignazio be entrenetan nintzan futboleko arbitro batzukaz: Ortiz de Mendibil, Sainz Elizondo...

Zeu be ibili zara prestatzaile fisiko, ezta?
Kirol-monitore espezialitatea egin neban Bilboko Kirol Etxean. Froga batzuk egin



behar izan nebazan: igeriketea, gimnasia, sokatik igotea, teoria... Madrilen, hautesle nazionala izateko titulua lortu neban. Eta halan, monitore hasi nintzan Zamudioko psikiatrikoan. Gaixoakaz gimnasia egiten neban, urteerak... eta solo bat be egin genduan. Ospitalean beharrean egon nintzan bitartean, ez eusten inoiz jarri oztoporik lasterketetan parte hartzeko.

Alfredo Uriaren entrenatzailea be izan nintzan, eta garai hatan Kantauriko Jokoak irabazi nebazan. Bizkaiko Aldundiko Ibarrek harrera ederra egin eustan.

Kantauriko Jokoak?

Euskadi, Kantabria, Asturias eta Galizia-ko kirolariok hartzen genduan parte. Ni hiru probatan aritu nintzen: 1.500 eta 5.000 metroetan, bigarren lotu nintzan; eta 3.000 metroko oztopo-lasterketan, lehenengo.

Afrikarrak zure garaian be ziran nagusi?

Bai, baina ez ziran asko etortzen: bospasei lagun. Lasarteko Nazioarteko Krosean hamasei aldiz hartu dot parte, eta hara honek be joaten ziran: Abebe Bikila, Mamo Wolde eta Zapotek. Etiopiakoak beti nagusi; ortozik egiten eben lasterketea.

Orduan be izango ziran dopinaren gane-ko kontuak...

Askok ez zan entzuten. Batzuek esaten eben pastilla batzuk egozala, baina nik ez neban halakorik ikusi inoz. Garai hatan ez egoan analisirik, ezta gaur egungo kontrolik be.

Afrikarren aurka ez eze beste “desafio” batzuetan be ibilia zara...

1980ko otsailean 100.000 pezeta jokatu ziran, nik Jose Antonio Landa “Sara”ri Santo Domingoko aldatza igoten baietz irabazi. Berak bizikletaz igongo eban aldatza; eta nik, korrika. Baina nekatu egin nintzan eta berak irabazi eban. Gero, parrandea egin genduan txokoan, eta kito! Beste behin, Berangoko Josetxo Elorduyren zaldiaren aurkako desafioa egin neban Santi Mamin: zaldiak hiru kilometro egin behar eban; eta nik, bi eta erdi. 10.000 pezeta jokatu genduan, eta neuk irabazi neban.

Zein izan zan parte hartu zenduan azken lasterketea?

Urkiolako igoera. Han nabaritu neban

Palmaresa

Urrea

–1.500 metro lauak, Kantauroko II. Joko-
etan (Oviedo): 1965

-1.500 metro lauak, Bizkaiko Udaberri
Txapelketan: 1965

–San Bernabe Txapelketea (Logroño):
1966

–Espainiako Krosa (Barreda): 1968

–Kantauriko V. Jokoak (A Coruña): 1969

–San Anton Krosa (Urduliz): 1974 eta 1976

–Gasteizko XIV. Krosa: 1976

–Gernikako II. Ibilaldia: 1979

–San Martin Krosa (Zamudio): 1980

–Bizkaiko Txapelketea (beteranoak):
1981

–Gasteizko Krosa (beteranoak): 1984

–Euskadiko XX. Krosa (beteranoak): 1984

–Euskadiko II. Krosa: 1985

–Euskadiko XVII. Krosa (beteranoak):
1991

Zilarra

–Gabon Zaharreko Krosa (Galdakao):
1973 eta 1981

–Gernikako XXVI. Krosa: 1974

Brontzea

-3.000 metroko oztopo-lasterketea, Kan-



tauriko II. Jokoetan (Oviedo): 1965

-3.000 metroko oztopo-lasterketea,
Kantauriko III. Jokoetan (Gipuzkoa):
1966

–San Anton Krosa (Urduliz): 1980

–Laudioko Krosa: 1983

Beste txapelketak

–San Andres Krosa (Usansolo / Gal-
dakao): 1962, 1963, 1965, 1966, 1968,
1969, 1971 eta 1972

–Gabon Zaharreko Krosa (Galdakao):
1963, 1975 eta 1976

-1.500 metro lauak, Kluben Arteko
Espainiako V. Txapelketan: 1964

–Bizkaiko Txapelketea: 1964, 1965,
1966, 1967, 1968, 1969, 1973

- Hori Bai Krosa (Larrabetzu): 1965

-5.000 eta 10.000 metroko lasterketak,
Getxon. 1965

–Zorrotzako Nazioarteko Krosa: 1966
eta 1969

–Juan Zubelzuren oroimenezko Krosa:
1967 eta 1969

–Lasarteko XVI. Nazioarteko Krosa:
1971

–San Anton IX. Krosa (Urduliz): 1977

–Korrikalari Mungiako I. Maratoia:
1978

–Santo Domingora VI. Igoera: 1981

txarto nenbilen berna eta aldaketatik. Korrika egiteari 55 urte nebazala itxi neutsan. Aldaka bietako ebakuntza egin deuste.

Zure kirol ibilbidea kontuan hartuta,
bitxikeria bat baino gehiago izango
dozu kontetako...

Beno! Behin, Errege Egunean, Urdu-
lizen euki neban lasterketea. Ondo ni-
noian: atzera begiratu eta ez etorren
inor. Agure bat ikusi neban bedar eba-
ten. Kodainea hartu eta bedarra ebaten
lagundu neutsan. Nahikotxo ebagi ne-
ban eta bigarrena baetorrela ikusi ne-
banean, korrika egiteari ekin neutsan
barriro. Lehenengo heldu nintzan hel-
mugara. Sekulakoa!

Beste behin, Mungiako San Antontxu jaietan, zapatila barriakaz egin neban korrika, eta min egin eusten. Soloan egoan baserritar bati bere abarkak eskatu, jantzi eta korrika jarraitu neban. Baina honeek be gastauta egozan eta apurtu nebazan. Ortozik sartu nintzan helmugara.

Zertan zabilz gaur egun?

“Apala” eta “Rubio” idiakaz eta solotan ibiltzea dot afizino. Idiakaz hogeit urtean jatsi naz Bilboko jaietara. Baina orduko denporak ondo gogoratzen dodaz.





Jurgi Kintana, historialaria

“Txikia bada ere, ez dugu euskal literatura guztiz ezagutzen”

Urre urdinaren lurrina. Euskal idazle galduaren bila liburua blog batean egindako aipamen baten du hazia, antza.

Iban Zaldúa idazleak hau aipatu zuen: euskal literatura izan zena izan beharrean; hau da, abadeek idatzitako liburuez aparte, oso kostunbristak eta tradizionalistak zirenak, interesante izango zela Europako beste herrialdeetan dauden bezalako nobelak egotea: burgesia girokoak, erdi mailako klaseen gorabeherak kontatzen dituztenak, industrializazioa... Eta halakorik gure literatura-tradizioan egon ez denez, idazle faltsu bat asmatzea proposatu zuen, eta halako nobela bat gaur egun idaztea, antzinakoa izango balitz bezala. Ideia horretatik abiatuta, ezaugarri horiek betetzen zituen XIX. mendeko idazle bat non topa nezakeen hasi nintzen pentsatzen, ea halako idazlerik existitu zen. Liburuan bilaketa horren berri eman dut.

Eta non bilatu duzu?

Burges-klasean, Bilbon, Donostian, Iruñean... Idazleak banan-banan aztertu

Jurgi Kintanak liburu bi argitaratu berri ditu: *Urre urdinaren lurrina. Euskal idazle galduaren bila* eta *Intelektuala nazioa eraikitzen. RM Azkueren pentsaera eta obra*. Lehenengoan ezagutzera eman ditu XIX. mende eta XX. mendearen lehen erdiko autore ezezagunak; eta bigarrenean, errepasoa egin die Euskaltzaindiaren sortzailearen pentsaera eta obrari.

*Testua: Itxaso Marina
Argazkia: IM eta Euskaltzaindia*


ditut: batzuk baztertu egin ditut; eta beste batzuek zer egin zuten kontatu dut.

Lan zaila izan da?

Zaila ez; interesatea. Lan bat zaila eta aspergarria bada, ez dut egiten. Gainera, hau nik nahi izan dudalako idatzitako liburua da. Nire ustez, interesatea izan da, eta zailtasuna ere beste eragingarri bat izan da lanean jarraitzeko.

Zein idazlerekin egin duzu topo?

Euskal literaturan lehendik ezagunak ziren hainbat idazlerekin: Antton Abbadia edo Arturo Campion, batzuk aipatzearren. Baina beste prisma batetik aztertu ditut, eta haiengandik hain ezagunak ez diren gauzak ezagutzeko aukera izan dut. Liburuan agertzen direnak euren garaian beste modu bateko literatura egin zuten idazleak dira. Egia da 500 orrialdetako nobelarik ez dudala topatu; baina bai, bixiak eta ezezagunak diren gauzak. Horiek autoreren batek inoiz aipatu izana baliteke, baina gainetik. Nik bildu eta kontatu egin ditut liburuan.



Emakumerik badago idazle horien artean?

Bai, Francisca Astibia bilbotarra, esate baterako. Emakumeak poema batzuk-eta idatzi zituen gerra aurrean, gero, gerra ostean, Jon Mirandek idatziko zituenen antzekoak direnak eta Lauaxetarekin ere harremana dutenak. Baina emakume hori ez du ia inork ezagutzen.

Zergatik ahaztu gara idazle horiekin?

Batetik, pertsonaia horiek gerra zibilaren aurrekoak dira, eta gerraren aurretik egin ziren hainbat gauza gerraren ondorioz galdu egin dira: batzuk hil zirelako, edo beste batzuek egunkarietan edo aldizkarietan idatzi zutena gerraren ostean ez delako aztertu... Bestetik, eredu nagusi bat ezarri da literaturan, eta horren historia idatzi dutenek inportantzia handiagoa eman diete autore batzuei, besteei baino.

Gure literatura berrikustea merezi duela diozu; horregatik, beharbada?

Euskal literatura oso txikia delako ustea dago. Eta, hainbat arrazoi tartean, egia da, beste herri batzuetako literaturarekin kon-

paratzen bada. Baina txikia izanda ere, txiki hori ez dugu guztiz ezagutzen. Badago oraindik zer aztertu, gauza politak.

Intelektuala nazioa eraikitzen. RM Azkueren pentsaera eta obra liburuan zure tesiaren zati nagusia bildu duzu. Azkueren obra oso-osorik hartzen duen lehenengo lana omen da...

Lan asko daude Azkueri buruz; nirea ez da bakarra. Gertatzen dena hau da: lan batzuk filologoei, esate baterako, egin dituztela eta eurei interesatzen zaizkien gaiak aztertu dituztela; eta folkloristek, folklorearekin zerikusia dutenak. Ni historialaria naiz eta hau egin dut: Azkueren bizitza aztertu, bere garaian kokatu, eta bere obra bere bizitza pertsonal eta garaiko zirkunstantzien arabera azaldu. Landu zituen arlo ezberdinak –literatura, hizkuntzalaritza, musika...– aztertu ditut, eta zein helbururekin jorratu zituen azaldu dut.

Zer nabarmenduko zenuke bere pentsaeratik?

Karlista zela uste bada ere, Azkue abertzalea izan zen, eta bere obra guztia ideologia nazionalista batean azaltzen da. Hala ere, eta alderdi politikoekin harremanak izan bazituen ere, Azkue ez zen alderdi gizona izan. Berak euskal kultura nazionala sortu nahi zuen; herri-tradizioak hartu, eta horietan oinarrituz, proiektu nazional moderno bat sortu.

Eta bere obratik?

Kultua zen guztia interesatzen zitzaion. Euskaltzaindia sortzea bere obrarik nagusienetakoa izan zen, nire ustez. Hizkuntza babesteko, erakunde sendo baten beharra zegoela ikusi zuen, eta 30 urtean izan zen harremanetan erakunde publikoekin, Euskaltzaindia sortzeko. Euskal Akademia 1919n sortu zuen eta Euskaltzaindiaren lehenengo burua izan zen. Frankistek Akademia itxi zuten gerra zibi-

lean, eta berak berriro zabaldu zuen gerraren ostean. Beste lan batzuk ere baditu: herri-tradizio bilketak, kantutegia... eta horiek guztiak lehen aipatutako kultura nazionala sortzeko ikuspegitik ulertzen dira.

Zergatik Azkue?

Euskal kulturari buruzko zerbait aztertu nahi nuen tesirako, eta Euskaltzaindian bazeuden Azkuek idatzitako 6.000 gutun, sakonki aztertu barik. Gutun horietan gauza asko kontatzen dira, publikazioetan-eta agertu ez direnak, eta lantzea merezi zuen.

Loturarik topa daiteke liburu bien artean?

Bai. Tesia lehenago idatzi nuen eta egiaztatu ahal izan nuen moduan, Azkuek harremana zuen bere garaiko ia euskaltzale guztiekin. *Urre urdinaren lurrina* liburuan agertzen diren idazle asko Azkueren gutunei esker ezagutu ditut, eta Azkue bera ere aipatzen dut liburuan.



“Euren garaian beste modu bateko literatura egin zuten idazleak batu ditut liburuan”

“Herri-tradizioetan oinarrituz, proiektu nazional moderno bat sortu nahi zuen Azkuek”



Gora Larrabetzu

 **Aliprox**

UNIC. J. MATEU COLOMA

Barris de sales de Na⁺ 480 l/ha i l/ha de sales de Ca⁺⁺ 120 l/ha i 240 l/ha

Onda para jaïctar!

[illegible]



XENON

Microelectronics S.p.A.






una tecnologia innovativa, completa, personalizzabile...
 un'azienda che
 produce il più innovativo microelettronico
 italiano, azienda che produce il più innovativo
 microelettronico italiano, azienda che produce
 il più innovativo microelettronico italiano...

Xenon S.p.A.
 Via S. Maria, 100
 20139 Milano
 Tel. 02/5811.1111
 Telex 320000 XENON I

Xenon S.p.A.
 Via S. Maria, 100
 20139 Milano
 Tel. 02/5811.1111
 Telex 320000 XENON I

Karlos
pinturas e mais

90 04 455 00 50
21 111 1100 101 101
90 501 107 1 112 112

**PAPENA
ETA
PINTURA
ORO HAR**

**Adutora, 10 Lâminas ortopedicas
-CHINA LAMINATEX (Plywood)**

[illegible]

LARRABETZU AURKERA
Euskal Herria AURRERA


Arundinaria - Pseudodendro
Hnos. VILLEGAS
Andes. Man. 20 hab.
Tfno: 91451142

4806 LABRABETTU
Koblenz

ONDO EROS
SAHARIA + FRUTA
 ITERRA BOUTIQUE
 IMPERIA
94 455 54 47
 Avenida 24 de Outubro, 114 - Lisboa 214 114 114

Jai bikoitza

Andra Mari jaiak eta Emeteriak ospatzen dira abuztuan Larrabetzun



Krisia gogor dabil jotzen, eta diru falta esparru guztietan igarten dogu. Ez da harritzekoa, beraz, kultur ekitaldi gitxiago antolatzea. Larrabetzu ez da salbuespena izan, eta diru gitxiago -%30, alegia- gastatuko da aurtengo jaietan. "Leku orotan gertatzen ari dan joera da", esan deusku jai-batzordeak. Garai ekonomiko txarra euki arren, gogotsu ibiliko da jai batzordea, jaietara ahalik eta jente gehien ekartzeko helburuagaz. "Asmo berezirik ez dogu: lagunek parte hartzea eta ondo pasatzea da gura dogun gauza bakarra". Eta parte hartzeko aukerea izango dabe larrabetzuarrak: lehenik eta behin Andra Mari jaietan, eta gero, Emeterietan. Atsedetik ez!

Andra Mari jaiak abuztuaren 14an hasi, eta 16an amaituko dira. Ganera, abuztuaren 24an San Bartolome Eguna be ospatuko dabe herrian. Jaiak hasi baino egun bat lehenagorako, hau da, abuztuaren 13rako, ekitaldi batzuk antolatu dira: 18:30ean paleta partidak ikusteko aukerea egongo da, eta 21:00etan herri afaria egingo da. Afaldu

“Krisia dala-eta %30 jaitsi egin da jaietako aurrekontua”

ostean, jankideek abestiak kantatuko dabez. Euren soinuek lekukoa emongo deustse jaietako lehenengo egunari, abuztuaren 14ri.

Barikuan, 14an botako da txupinazoa 21:00etan. Geroago, herritarrek osatutako kalejira herrian gora eta behera ibiliko da. Besteak beste, txistulariak eta Akermari giroa berotzen saiatuko dira bertan. Indarrak ez galtzeko, odolosteak eskainiko dira Larrabetzuko tabernetan 22:00etatik aurrera. Erromeria 24:00etan egingo da, eta horrek emongo deutso amaiera egunari.

Zapatuan musikak lagunduta esnatuko

Andra Mari jaiak

Abuztuaren 13a, eguna:

18:30: Umeentzako pelota partidak

21:00: Herri afaria / Kantuz Kantu

Abuztuaren 14a, barikua:

21:00: Txupinazoa

21:00: Kalejira: txistulariak, Akermari...

22:00: Odoloste jana tabernetan

24:00: Erromeria, Tirauki taldeagaz

Abuztuak 15a, zapatua:

12:00: Dantza kalejira

13:30: Pintxoan dastatzea plazan

18:30: Asto lasterketa

19:30: Bertsolariak, balkoitik-balkoira

22:00: Erromeria, Haitzama taldeagaz

23:00: Kale antzerkia: *Lehiaketa* ikuskizuna, Trapu zaharrak talderaen eskutik

24:00: Erromeria

Abuztuaren 16a, domeka:

11:30: Kalejira, erraldoiak, Ondalan taldeagaz

12:30: Umeentzako jokoak

14:30: Umeen bazkaria

17:00: Pelukeria eta Makillaje Txapelketa (15 urtera arte)

18:30: Goitibehera Tokiko Txapelketa

20:00: Erromeria, Gure-Etxean


22:00: Erromeria, Zurrust taldeagaz

Abuztuaren 24a, San Bartolome

13:30: Bizikleta igoerea

14:00: Paella Txapelketa

17:00: Briska Txapelketa





dira Larrabetzuko bizilagunak. Izan be, 12:00etan dantza kalejirak zeharkatuko dau herria. Ondoren, pintxoak dastatu ahal izango dira plazan. Arrastian asto lasterke-tea egingo da, eta saioa eskainiko dabe bertsolari batzuek. Erromeriez ganera, kale antzerkia ikusteko aukerea egongo da gabeen. Krisia dala-eta, ez da aurten pelota partidarik jokatu. Jai-batzordeak erabagiak hartu behar izan ditu aurrekontua egokitzeko eta “penaz” pelota partidak bertan behera itxi behar izan dabez, “ikus-le gitxi hurbiltzen ziralako”.

Domekea umeen eguna da. Goizean erraldioak nagusi izango dira kalejiran. Beranduago, jolastu eta bazkaldu egingo dabe txikienek. Arrastian Pelukeria eta Makillaje Txapelketea antolatu dabe 15 urte baino gitxiagokoei begira. 18:30ean Goitibehera txapelketea jokatu da. Erromeria bik biribilduko dabe jaia gabeen. Halandaze be, azken txanpa San Bartolome Egunean egingo da. Goizean bizikletaz ibiliko dira kirolariak, eta arrastian Paella eta Bris-

ka Txapelketetan hartuko dabe parte zen-bait lagunek.

Jarraian, Emeteriak

Atsedean hartzeko denporarik ez dabe eukiko larrabetzuarrek, egun batzuk pasa eta gero Goikolexea auzoan Emeteriak ospatuko diralako. Jaiek abuztuaren 29tik irailaren 1era bitartean iraungo dabe. Lehenengo egunean Jesús Loroño X. Txirrin-dularitza Klasikoa antolatu dabe. Arrastian Akermari igoko dabe Goikolexeara eta txupinazoa botako dabe txistularien doinuek lagunduta. Marmitako Txapelketea ailegatu da bazkaltzeko orduan, eta digestinoa egin eta berehala, Barrenetxeara igoko dira mendizaleenak. Gabeen erromeria egingo da.

Domekan Mus eta Briska Txapelketak jokatu dira eta musika erromeriari esker etorriko jaku oster a be. Era berean, Kantari Gazte Ezezagunen Txapelketea be antolatu dau jai-batzordeak. Astelehenean baserri-ri begiratuko deusie jaiek. Goizean ardi



txakurren erakustaldia, eta arrastian idi-probak ikusi ahal izango dira. Tartean, bertsolariak izango dira, eta gabeen erromeria eskainiko dau Patxi bat, bi, hiru taldeak. Azken egunean, Irailaren 1ean, trikitilariak esango deutsee agur jaiei.



Emeteriak

Abuztuaren 29a, zapatua

10:00: Jesús Loroño X. Klasikoa
13:00: Akermari igotzea, Goikolexeara
13:30: Txupinazoa (txistulariak)
14:00: Marmitako Txapelketea
19:00: Barrenetxera igoera
22:00: Erromeria

Abuztuaren 30a, domeka:

12:00: Mus Txapelketea (finala arrastian)
17:00: Briska Txapelketea
19:00: Aizkolariaren erakustaldia

22:00: Kantari Ezezagunen Txapelketea (15 urtera arte)

22:00: Erromeria, Arizgoiti taldeagaz

Abuztuaren 31, astelehena:

12:00: Ardi txakurren erakustaldia

13:30: Bertsolariak

19:00: Idi-probak

21:00: Erromeria, Patxi bat, bi, hiru taldearen eskutik

Irailaren 1a martitena:

12:00: Trikitilariak

Gora Lezamako jaiak



GARAIOLTZA, S.A.

INTIMIDAZIOA K. ERAKUNTZAK

LEZAMA

ETXERIZTZAK, MERKATARITZA-LUKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAKUNTZAK, LEHIATE HANDIAK,

ORDAINTZEKO ERLAZTASEN HANDIAK


TF.: 94 455 50 19

Ursuñe 2000, 128 (Ibaeta)

Lezama (Bizkaia)

ZORRIZKETAN
LEZAMAKO MERKATU ALERAKIA

ELISABAZ BIZI JAIAK



DATA BOSTTZEAK LEZAMAKO DUSKAPAZ
TEL: 94 455 01 75

HARBI-BILBO

HABENTZIA OKOKORRA

LEHEN BISTEKO HARBIEN, HARBI HARBIEN, HARBIENEN, HARBIEN
HARBIEN, HARBIEN, HARBIEN, HARBIEN, HARBIEN, HARBIEN

HARBIEN, HARBIEN

Harbi, harbi, harbi, harbi, harbi, harbi, harbi, harbi

LEZAMA

LEZAMAKO HARBIEN, HARBIEN, HARBIEN

TEL: 94 455 50 19

LEZAMA

LEZAMAKO HARBIEN, HARBIEN, HARBIEN

TEL: 94 455 50 19

LEZAMAKO BATZOKIA

LOKALAKO HARBIEN

LOKALAKO HARBIEN, HARBIEN, HARBIEN

LOKALAKO HARBIEN, HARBIEN, HARBIEN

LOKALAKO HARBIEN, HARBIEN, HARBIEN

LOKALAKO HARBIEN, HARBIEN, HARBIEN

TXAROLINA

LEZAMA



Carolina, 87
94 455 50 19

Lezama Txarolina
Lezama Txarolina

Yolanda Etxebarria (Txarolina) Txarolina, 87, 94 455 50 19

LEZAMA TXAROLINA

94 455 50 19

19



C.D.H. LOS AMIGOS DEL CABALLO

Olasarro baserria, 184 - Garaioltza auzoa - Lezama (Bizkaia)

Losamigosdeltcaballo.biz TEL: 94 455 65 11



Lezama Txarolina

Baserria txarolina txarolina

Uña txarolina txarolina

ESPECIALIDADES: UÑAK, E. UÑAKIN 2004

Argazkiak: Asier Saenz

Esan dogun moduan, Lezamako jaiak irailaren 4an, barikuan, hasiko dira ofizialki. Pregoia irakurri ostean, trikipoteoa egingo da herriko tabernetatik, eta gaberako Mozorro Lehiaketea antolatu da. Gaia “Baserria eta bere mundua” da, eta mozorrorik onena janzten dauanak bertako produktuen saskia jasoko dau saritzat. Era berean, txosnetara mozorrotuta hurreratzen direnei “2x1” eskaintza egingo jake, kalimotxo edo garagardoa edaten badabe. Ganera, bertako produktuen beste saski bat zozketatuko da gabeen. Ticketak jai-batzordeko

Azkenik, irailaren 10ean Bola-lekuko jaiak izango direla aipatu beharra dago; eta irailaren 13tik 15era bitartean, Kurtzeakoak.

“Aurtengo Mozorro
Lehiaketearen gaia
“Baserria eta bere mundua”
da. Irabazleak bertako
produktuen saskia
jasoko dau saritzat”

[illegible][illegible]

KING 9
Lancaster
 LANCASTER, JUNE 19, 2011
 Lancaster is a city of 100,000 people in the heart of the Central Valley.
 (www.king9.com)

**CONSTRUCCIONES
LANDETANE, S.L.**

**ANDER ETXebarria
MIKE FERRERIA**

TELEFONO: 0943 701 24 00 FAX: 0943 701 24 01
800 40 17 47
800 33 98 40

COMPAÑIA ADHESIVA, S.A.
800 10 00 00
Redes

JANARIDENDX
Jeune, Zehnte, Gekochte

FRANCOISE, 48
 18104, L'Espresso, 18104, 18104
 Tel. 011 205 248

Gizakiak sendatzen dituzten

Berrikuntza ez da industriari soilik dagokion terminoa, gaixoen sendabideak ere berritu egiten dira etengabe. Hala ere, animalien bidezko terapiak ez dira oso entzunak, eta, are gutxiago, zaldi-terapia. Sendabide mota hau da, hain zuzen ere, Eunate Guarrotxena larrabetzuarak darabilena; bakarra, Bizkaian.

Argazkiak: Eunate Guarrotxena

Zelan sartu zinen mundu honetan?

Nik Hezkuntza Berezian egiten dut lan, eta Madrileko Unibertsitate Konplutensean urte biko zaldiketa terapeutikoaren gaineko graduatu-ondoko ikasketak eta praktikak egin ditut. Duela bi urte, neure kabuz hasi nintzen lanean Lezamako Jeanen zalditegian, beste inork ez baitzuen eduki konfiantzarik arlo berri honetan.

Zertan datza terapia hau?

Hiru oinarri ditu: lehena zaldiaren tenperatura da, 38°C ingurukoa, giharrek eta zainak erlaxatu egiten dituen; bigarrena, zaldiak igortzen dituen inpultsuek, 90-100 minutuko, estimulazio neuromuskularra sortzen dutena da eta eremu neuronal berriak martxan jartzen dituztena, eremu berri hauek txarto daudenak ordezkatu egiten dituzte; eta azkenik, hirugarrena garuneko paralisia dutenena da. Hauek ezin dute burua artez mantendu, eta ondorioz, ezin dira ibili. Beraz, zaldi gainean ibiltzea oinez ibiltzea, baina jesarrita, bezalakoa da eurentzat. Oreak ariketa batzuk eginda lepoa eta bizkarreko muskuluak indartzen dira, eta garunak ibiltzearen patroiak ikasten ditu, geroago oinez ibiltzea ahalbidetuko

“Zentzumenak, oreak, portaera oldarkorrek, auto-diziplina, auto-estima edo arnasketa lantzen dira zaldi-terapiaren bidez”

“Zaldiak talde-sena du, eta ez dauka aurreiritzirik; gainean eramaten du zaldizkoa, horrengan harrotasuna sortuz eta auto-estima handituz”

dituztenak.


Esandakoaz gain, besteak beste, ukimena, entzumena, ikusmena, oreak, koordinazioa, harremana, portaera oldarkorrek, auto-diziplina, auto-estima eta arnasketa lantzen eta hobetzen dira.

Nori dago zuzenduta?

Erabileran nahiko zabala dauka, baina batez ere arazo neuromotoreak (garun paralisia-ren eta auto-istripuen ondorioz sorturikoak), psikomotrizitate ingurukoak edo arazo psikikoak dituztenentzat da egokia. Edozelan ere, kasu bakoitzari egokituz erabili behar da terapia.

Zein maiztasunarekin ezartzen da sendabide hau?

Kasurik gehienetan astero ordubetez erabiltzen dut terapia. Baina esan dudan moduan, kasu bakoitzarentzat protokolo eta programa bana egiten dut modu indibidualan; eta zenbait kasutan, autonomia-aren arabera, taldetan. Izan ere, autonomia nahikoa dutenentzat oso garrantzitsua da zaldia ile-eskuilatu, zaldia ukitu, zaldia jagon... honek guztiak ere aurreko trebetasunak garatzen laguntzen baitu. Gainera, zaldiak talde-sena du, eta ez dauka aurrei-



zaldiak



ritzirik; hau da, berdin zaio zelakoa zaren, eta gainean eramaten du zaldizkoa, horrengan harrotasuna sortuz eta auto-estima handituz. Horrezaz gain, zaldiak beti sortu izan du magia antzeko zera hori, bai umeengan, bai nagusiengan.

Zelakoak dira emaitzak?

Emaitzak nahiko azkarrak dira kasu gehienetan, geroago hobekuntzak astiroago gautzen badira ere. Kasu batean, adibidez, oreka eta psikomotrizitatea oso txarra zuen ume bat sei hilabetea pasa zen bizikletaz ibiltzera, eta horrek, zelan ez, indar handia eman zidan aurrera egiteko. Beste ume bat terapiaren ondorioz oinez ibiltzen hasi da, eta poztasun itzela ematen dizu horrek.

Zelan dago berton zaldi-terapiaren egoe- ra?

Madrilen eta beste zenbait lekutan gaixoen elkarteak daude, eta euren bidez diru-laguntzak edo azpiegiturak lor ditzakezu. Hemen, ostera, ez dago inolako laguntzarik, oraingoz trabak baino ez dira topatzen. Izan ere, dauzkadan bezero guztiak ahoz aho egindakoak dira, esan dugun moduan, emaitzak adierazgarriak baitira. Eta arrakasta ikusita, zenbait lekutan hasi dira interesatzen orain. Honela, Gurutzetako ospitaleko errehabilitazio taldetik ere deitu naute esperientzia hau azaltzeko, nire kasuren batzuen aurrerakuntza ikusitakoan. Hala ere, medikuntza tradizionala na-

hiko geldoa da berrikuntzak bereganatzen, baina gazteak zabalagoak dira eta astiro-astiro interesa sortzen dabil.

Zein da terapia honen etorkizuna?

Nik uste dut zentro handi bat beharrezkoa dela, leku egokia izango lukeena, baita pista estalia ere, langileak behar den moduan kontratatuta eta baldintza egokiak edukiko lituzkeena. Zeren lan hau egiteko bi pertsona behar baitira: bata, zaldia eramateko; eta beste bat, kasu honetan neu, ariketak, jolasak eta postura aldaketak egiteko.

Momentu honetan proiektu bat lantzen nabilt. Gaixoen elkarteak prest egongo lirateke horrelako proiekturen bat sustatzeko.

Bait Euskarari Zintzagiria
Euskararen erabilera zuzena - ikasgai eta irakasleentzat

1.000 erabiltzaile baino gehiago jarraitzaile

ERANDIO
DIONOSIA
AGURAIN
HENDIAIA
IRUNEA
IURBETA
GASTEIZ

Bait Euskarari Zintzagiria
Euskararen erabilera zuzena - ikasgai eta irakasleentzat



Sondikako betiko koadrila

Mende erdia bete duen lagunarteko bazkaria

Bazkaria pilota partida baten haritik hasi ziren antolatzen 1960. urtean. Iñaki, Isasi, Andoni, Koldo Agirre eta gainontzeko lagunak Anoetara joatekoak ziren, pilota partida bat ikustera. Astero diru-kopuru bat jartzen zuten, egun horretako bazkaria eta ikuskizunaren sarrerak ordaindu ahal izateko. Baina patua apetatsua da, eta Sondikako gazteak sarrera barik lotu ziren. Parranda barik ere lotuko ziren? Ez, inondik inora!

Aurreztutako diruarekin zer egin aztertu ostean, aukerarik onena bazkari bat egitea zela erabaki zuten aho batez. Alkandora zuria, praka urdinak eta abarketak jantzi, eta pilota partidarako sarrerarik ez izateak eguna hondatuko ez ziela hartu zuten helburutzat. Berrogeita hamar urte pasatu dira harrezkero, eta hartutako erabaki hura urtero eutsi izan dioten ohitura bihurtu da.

Lehenengo bazkari horretan herriko zortzi lagun batu ziren, baina urteak pasa ahala, lagun gehiago animatu ziren parrandan parte hartzera. Karmelo tartean izan zen. Gaur egun 12 gizonak osatzen dute koadrila. Aurreko lerroetan aipatutako jantziak Sondikako koadrilaren uniforme ofi-

Ohitura polita hasi zuen duela ia bost hamarkada Sondikako lagun-talde batek. Gazteak zirela lagunarteko bazkaria hasi ziren antolatzen, eta denboraren joan-etorriak ez die elkarrekin egoteko gogoa kendu; guztiz kontrakoa, indartu egin du. Karmelo Gaztañagak eta Iñaki Zaballak istorio honen berri eman digute.

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: K.G. eta I.Z.




ziala bilakatu dira. "Abestea izugarri gusztatzen zaigu, eta askok abesbatzaren baten partaideak garela pentsatzen dute. Egia esan, oso parranda ederrak egiten ditugu". Lagunak goizeko 10ak inguru lotzen dira herriko taberna batean, eta han motorrak

berotzen hasten dira. Hamarretakoa hartzen dute bost litroko ardo botila batek lagunduta, eta eztarriak afinatzeari ekiten diote, eguerdiko poteoan behar bezala kantatu ahal izateko. Ondoren, bazkalduko duten herrirantz abiatzen dira.

Kostaldea nahiago

Bizkaiko ia geografia osotik ibili da lagun-taldea: Urduña, Mungia, Bakio, Elantxobe... Baina kostaldera nahiago dute joan, "mugimendu handiagoa dagoelako. Taberna gehiago daude eta txikiteoa luzatzeko aukera ematen digu. Gainera, herriak hurbil daude bata bestetik eta geldialdiak egin ditzakegu bidetik". Bazkaria arratsaldeko 3etan egiten dute, eta jatetxean utzi dieten arte izaten dira, lokala euren abestiz girotzen. Iluntzean Sondikara itzultzen dira, "apur bat afaldu, hamarretakoan irekitako ardo botila bukatu eta indarrak galdu arte jarraitzen dugu parrandan!".

Sondikako lagunak 18 urte inguru zutenetik ezagutzen dute elkar, eta koadrila osoa urtean behin baino ez da elkartzen gaur egun. Horrexegatik ondo prestatu behar da irteera. "San Andres egunaren inguruan afari bat egiten dugu irteerari buruz



hitz egiten hasteko. Urte bakoitzean taldekide bati dagokio bazkaria-eta antolatzeari. Aurten Armintzara-edo joango gara uste dugu”.

Joan den urtean botatako parranda gogoan dute oraindik, eta aurtengoa ailegatzeko irrikan daude. Hitzordua San Ignazio egunaren inguruan izango dute. “Uztailaren amaieran-edo antolatu ohi dugu bazkaria, lehen, gehienak oporretara abuztuan joaten ziren-eta”.

Lagun minak dira, baina aukera gutxi dute elkarrekin egoteko. Batzuk kanpora joan dira bizitera, eta zaila da guztiak batzea. Uztaileko bazkaria, ondorioz, oso inportantea da eurentzat. “Osterantzean, ez genuen elkar ikusiko”. Era berean, turismo apur bat egiteko ere aprobetxatzen dute.

Ahal izan arte

Elkarrekin egoteko gogoia handia bada ere, gero eta korapilatsuago dute bazkaria antolatzea. “Badakizue, dagoeneko ez gara 20 urteko mutilak eta ajeekin hasi gara: kolesterola... Kide baten batek huts

“Bazkaria antolatu ezean, jadanik ez genuen elkar ikusiko”

egin du inoiz, baina bazkaria urtero egitea lortu dugu”. Taldean 64 urtetik 78 urtera bitarteko lagunak daude, eta bidean kide bi galdu dituzte, zoritxarrez. Aspaldiko lagunak dira, txikiteroak, Sondika-ko tabernetatik poteotan eta abesten eguneroko ibiltzen zirenak. Euskal Herriko tabernetan gaur egun ikusten zaila den arraza horretarikoak. “Orain bost lagun-edo lotzen gara noizean behin, txikito pare bat hartzeko”.

Eurek hasitako ibilbidea eta ohitura urteetan zehar irautea dute helburu. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen dute taldean jende berria eta gaztea sartzea. “Honek aurrera jarraitzea nahi dugu. Bazkaria eta irteera ahal izan arte antolatzeko asmoa dugu”. Urte askotarako!



Koadrila, 1960. urtean

Elgezaldg
Elkartea

Elkartea / Taldea
Elkartea / Taldea

ELORRIETA
INSTALACIONES

Elkartea / Taldea

Elkartea / Taldea

639 57 98 48 - 639 58 25 47

Imakalburia
ETORRI

Elkartea / Taldea

Elkartea / Taldea

639 57 98 48 - 639 58 25 47

MARMOLCINTZA

GOYO

Elkartea / Taldea

Elkartea / Taldea

Elkartea / Taldea

Elkartea / Taldea

KAFETEGIA

IAZI
JATETREA

Elkartea / Taldea

Elkartea / Taldea

EREKINTI

Elkartea / Taldea

Elkartea / Taldea

elekma

Elkartea / Taldea

Elkartea / Taldea

Camiseria
Charcuteria

IMAZ

Elkartea / Taldea

Elkartea / Taldea

Derioztarrak bost kontinenteetan

Berbaldioi Olatzek eman zien hasiera astelehenean. Kubara eroan gintuen, Habanara. Bidaia Karibeko itsaso urdinetik haratago joan zen: kubatarren bizimoduan barrena. Ezin hobeto erakutsi zigun turistek disfrutatzeko duten Habana, bai eta bertakoek bizi dutena ere. Blokeoa gaindituz, oinarritzko beharrianak betetzeak ekartzen duena; kultura, hezkuntza eta medikuntza aldetik duten maila ikaragarria. Kubatarren espiritua ulertzeko, esaldi bi jarri zituen hangoen ahotan: "Zaharrak gazteen atzeraguardia dira" eta "Kuban ez dugu soberan daukaguna ematen, baizik eta banatu egiten dugu daukagun apurra". Patxada handiko herria izanda ere, denek dute zereginen bat, eta zer konpartitu besteekin. Eta jakina, dantza eta musika edonon ikus daitezke.

Mari Carmen eta Jose Angelekin Nord-Kappera joan ginen asteartean. Suedian hasita, paisaiak lasaitasunera gonbidatzen du. Muino txikiak, pinuak eta urkiak, lakuak, gorritz pintatutako egurrezko etxeak... bideetan inor ez da arin ibiltzen. Herriak eta hiriak aproposak dira bizikletaz paseatzeko. Stockholm hiri ederrean irlak eta itsasoa ditugu, alde zaharra eta modernoa, txalupak, museoak... den-dena ondo zaindua, lorategiz betea.

Mapan gora, desagertzen doa gaua. Zirkulu polarra gurutzatu eta Sami herrira (Laponia) ailegatu gara. Elur-oreinak edozein momentutan ager daitezke bide erdian. Une batean, Finlandian; gero, Norvegian; eta itsasoa berriro. Laster Nord-Kappera helduko gara. Bidea amaitu da, ezin da iparralde-rago joan. Milaka bisitari auto-karabanaz eta autobusez etorri dira. Guztiak gaueko 12ak noiz jo zain daude. Lainorik gabe

Derioko bost lagunek munduan zehar egindako bidaia kontatu dizkigute herriko bost lekutan. Berbaldiak "D5K: derioztarrak, bost kontinenteetan" ekimenaren barruan eskaini dituzte.

Testua eta argazkiak: Bestorrene



eguzkia sartzen doa eta, itsasoa ukitu baino lehen, igotzen hasten da berriro: "gaurdiko eguzkia da". Itzuli egin behar. Norvegia basatia da, ederra. Fiordoak, ur-jauziak edonon, bide estuak, kurbak, tunelak... astuna gidatzeko. Oslon derrigorrezko geldineua egin behar da: Munch pintorea, Giveland parkeko eskultura biluziak, eski saltoko instalazioak... Guztira, 12.000 kilometroko bidaia da, baina merezi du.

Asteazkenean Kristinaren txanda izan

zen. Aldaketa nabarmena, Hegoafrikara joan baikenen. Kamioia hartu, eta Namibia-rantz. Paisaia zoragarriak eta animaliak nongura: errinozerontek, lehoiak, gepardok, jirafak, ñuak eta elefanteak. Basamortu itzela da, itsasoraino. Eta hondartza handian hezurak eta fokak izaten dira, fokak eta fokak. Kayukoak. Safaria oinez egin dugu. Segurtasun-neurri bakarra hau da: "korrika egiten badut, zuek ere egin korrika nire atzetik". Padurak eta eltxoak. Latatz

Kupenlu

Hasierako, 1. urteko, 40.000 Litro (Jalekari)
Tel. 949 276 140 | Fax. 949 276 140
kupenlu@kupenlu.com

FILIPPE BEGOÑA
BEGONIA BEGOÑA

ENTRADA EN EL MUNDO DE LA
SPELLEA
BEGONIA BEGOÑA
1.000.000 P. 1.000

Hasierako, 1. urteko, 40.000 Litro (Jalekari)
Tel. 949 276 140 | Fax. 949 276 140

CORDON ROJO

Hasierako, 1. urteko, 40.000 Litro (Jalekari)
Tel. 949 276 140 | Fax. 949 276 140

IMPORTACIONES Y EXPORTACIONES

Hasierako, 1. urteko, 40.000 Litro (Jalekari)
Tel. 949 276 140 | Fax. 949 276 140

MIGUEL

Hasierako, 1. urteko, 40.000 Litro (Jalekari)
Tel. 949 276 140 | Fax. 949 276 140

MAMEN

Hasierako, 1. urteko, 40.000 Litro (Jalekari)
Tel. 949 276 140 | Fax. 949 276 140

egindako txabolak daude herrian. Umeen aurpegiak, argazki zoragarriak. Animaliak gauero etortzen dira kanpineko putzura. Hotza izaten da gauetan, eta beroa, eguerdietan. Egunsenti ederrak. Kolore-festa ikaragarria; gorria, bizi-bizia. Ilargia eta eguzkia batera daude. Lasaitasuna, baretasuna. Eta gosea. Jateko gutxi dago; baina kakahueteak, nongura. Victoriako ur-jauziak itzelak dira, luze-luzeak eta basati-basatiak. Eguzkiak itsasoa besarkatzen du. Afrika da.

Prisa barik

Atotzen eskutik New Yorkera abiatu ginen ostegunean. Izaera desberdineko auzoen deskribapena egin zigun. Ezaguenena Manhattan da: Central Park famatua, New Yorken "birikia"; finantza-gunea; etxe orratz izugarriak; Empire State; 0 gunea; Chinatown; Guggenheim museoa... Brooklyn auzorik populatuena da: bi milioi eta erdi biztanle du! Eta Bronx, arriskutsuena: banden arteko borrokak ohikoak izaten dira han. Gidariak autobusetik ez jaisteko aholkua eman die turistei, baina jaitsi egin behar, graffitiak argazkiak egiteko. Hain berezia den hirian arraza eta kultura guztietako jendea dago: zuriak, beltzak, latinoak, txinatarrak, juduak, kristauak, budistak, argal gutxi eta lodi ugari, famatuak leku guztietan, finantzako andre-gizonak alde batetik bestera korrika... Zelako nahaste-borrastea eta estresa! Turista bezala ikus-tea merezi duen hiria da, baina ez ei da gomendagarria bertan bizitzeko.


Mari Carmen eta Julenen furgoneta ostiralean hartu genuen, eta Asian zehar ibili ginen 10 hilabetea, prisa barik. Europa amaitu eta Turkian sartu gara. Gero, Kurdistanen, Iranen, Pakistanen, Ladakhen, Katxemiran, Nepalen eta Indian. Ere mu

“Turistek disfrutatzen duten Habana ezagutu dugu, eta bertakoek bizi dutena”

“Gidariak autobusetik ez jaisteko aholkua eman die turistei Bronxen, baina jaitsi egin behar, graffitiak argazkiak egiteko”

zabalak dira, kilometro askokoak. Bestelako kulturak ikusi ditugu, bestelako erlijioak, janzkerak, aurpegiak... Baina atseginak dira guztiak, abegikorak; geu baino askoz gehiago. Hainbeste bizipen laburtzea ez da erraza, eta argazki ikusgarriak laguntzen digute behar horretan. Edozein lekutan izaten dute autoa konpontzeko abildade ikusgarria: piezak lortu ezin bedituzte, eurek egiten dituzte. Bidaiaren sorpresarik handiena Iranen topatu genuen: emakumeen "egoki" jantzi beharra... Baina zein jende atsegina! Kultura, etxera gonbidatzen zaituena. Nepal ikusgarria da, India... Hala ere, arriskutsuegia da azken herrialde horretatik gidatzea. Hizkuntza arazoa da, baina elkarri uler diezaiokegu, eta lagunak egin.

Amaitu da aurtengo bidaiia; gehiago etorriko dira. Esaldiak dioen bezala, "txapela buruan eta ibili munduan". Eta gero, kontatu.



Prestazio handiko posta elektronikoa da eta ezaugarri hauek ditu: doakoa da erabiltzailearentzat; mezuak bidali eta jasotzeko aukera ematen du; postontziak 5 GBko edukiera du; kontaktuak kudeatzeko aukera eskaintzen du; zereginen egutegia du; euskaraz eta gaztelaniaz dago; irisgarritasunaren A bikoitza du, minusbalotasunen bat dutenek ere erabili ahal izateko; eta ez du publiziterik.

Aldundiaren ustez, posta elektronikoa hau Toki Administrazioaren eta bizkaitarren arteko komunikazio digitalerako formula bihurtuko da. Izan ere, herritarrek edozein gairi buruzko informazioa lortuko dute haren bitartez: dirulaguntzak, lan eskaintzak, kontratu publikoak eta eskaeren epeak, esate baterako.

Hamalau urtetik gorako bizkaitar guztiek gutun pertsonalizatu bat jasoko dute eta hartan posta elektronikoa aktibatzeko kode bat eta www.bizkaia.eu webgunerako esteka bat azalduko dira. Erabiltzaileak posta elektronikoen kontu berria sortzeko aukera izango du bertan, bizkaia.eu dominioari lotua. Erabiltzaileak nahi duen izena jar diezaioke kontuari. Era berean, posta elektronikoen helbide bat eta doako telefono bat jarriko dira erabiltzailearen eskura, bizkaia.eu posta elektronikoen gaineko zalantzak argi ditzaten.


BiscayTIK

Bizkaia.eu posta sistema BiscayTIK proiektuaren ardatzetako bat da. Proiektuak helburu nagusi bi ditu: alde batetik, informazioaren teknologia herritarrei hurbiltzea eta haien erabilera sustatzea; bestetik, Bizkaia informazioaren eta eza-gutzaren teknologia berrien Europako erreferente bihurtzea. Horretarako, 45 milioi euroko inbertsioa egingo da eta hiru ardatz landuko dira: bizkaitar guztientza-

Bizkaia.eu



Bizkaitarren doako posta elektronikoa

Bizkaiko Foru Aldundiak doako posta elektronikoa jarri du abian bizkaia.eu dominioan. Bizkaitarrok tresna hori erabili ahalko dugu bai administrazioarekin harremanetan jartzeko bai geure kontu pertsonaletarako.



ko doako posta elektronikoa sortzea; udalek erabiltzen dituzten sistema informatikoak berritzea eta webgune bat sortzea, herritarrek administrazioarekiko izapideak egiteko; eta nazioartean aitzindaria den teknologia zentro bat sortzea, proiektu berritzaile hau garatzeko.

“Doako posta elektronikoa da; postontziak 5 GBko edukiera du; eta euskaraz zein gaztelaniaz dago”



Derioko Zutik dantza taldeko kideak 1972. urtean

1 Aitziber Mugarra 2 M. Isabel Loustanau 3 Jon Aiarza 4 Alberto Aurre 5 Joseba Pascual 6 Andoni Aiarza 7 Lurdes Puertas 8 Lander Aiarza 9 Jon Ander Begoña 10 Jesus Lopez 12 Raquel Iñarra 13 Flora Luci Garcia 14 M. Carmen Manteca? 15 Ascen Manteca 16 Olga Iñarra 17 Irene Aiarza? 18 Marta Gonzalez 19 Gotzone Zarraga 20 Leire Begoña 21 Osane Oruetxebarria 25 Rosa M. Manteca 26 Nerea Larrabeiti 27 M. Carmen Martin 28 Argi Iturbe 29 Anastasia Lopez 30 Nerea Begoña 31 Gotzone Ibarzabal 32 Alazne Landa 33 Anabel Arziniaga 34 Esther Aurre 35 M. Jose Galindo 36 M. Elena Aiarza 37 Miren Igone Larrabeiti 38 Elvira Garitano 39 M. Jose Fernandez 40 Pili Garcia 41 Bego Lopez 42 Amaia Bolunburu 43 Angel M. Arevalo 44 Esther Mateos 45 Julian 46 Mikel Goikoetxea 47 Susana Madariaga 48 Carlos Fernandez 49 Victor Manuel Aiarza 50 Pili Carballo 51 Jose Ignacio Perdea 52 Bego Goikoetxea 53 Igone Larrabeiti 54 Txaro Martin 55 M. Mar Inoriza



BASERRI menua

1. arratsaldeko 17.00etatik aurrera, familiaren pilarenak: olibo, txakur, plater, ingurua, hiru berbereko txakurak.

Ordutegiaren inguruan dagoen eremuak eta beste hainbat daude.

Zamudioko Teknologia Parkoa
E-48.006 - 48930
T. 945 452 34 47
www.baserriak.com

29 €

garrantzitsua
txakurak
(100.000.000.000)

LEHIAKETA

Asmatu galdera eta sari hau lortu:

Bi lagunentzako tratamendua:

TXOKOTERAPIA

(gorputza txokolatez estaltzea)

Hilabete honetako galdera zera da:

**Zenbat motor
bildu ziren
Larrabetzun?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

–Telefonoz: 94 452 34 47

–e-mailez: aikortxori@aikor.com

–Postaz: Aresti kalea 2, 48170, Zamudio

Aurreko erantzuna: Txakolinaren Eguna

Irabazlea: Joserra Bajo

Etxeko sukaldaritza

Patata tortillea txanpiñoi saltseagaz



Maite Lekerika,
sukaldaria

Osagaiak (6 lagunentzat):

- 750 g patata
- Kinpula bat
- 6 arrautza
- Olio eta gatza

Saltsarako:

- 50 g pernil (txikitua)

- 100 g txanpiñoi (txikitua)
- 4 gazta-xerra
- 200 ml esnegain
- 4 berakatz atal (txikituak)

Prestatzeko area:

Patatak eta kinpulea garbitu eta txikituko doguz. Zartaginean olio ugari imini eta, bero dagoanean, patatea botako dogu. Bost minutu geroago, kinpulea gehituko dogu. Gatza botako dogu. Zartaginari es-talkia iminiko deutsagu eta 15 minutu in-guruan eukiko dogu su ez-tian (gorritu ba-rik). Olio kenduko dogu. Arrautzak ira-biatuko doguz eta patatea gehituko deu-tsegu. Tortillea egingo dogu.

Saltsea: Berakatzak olio apur bategaz gorrituko doguz. Gainerako osagaiak or-dena honetan botako doguz: txanpiñoiak, pernila, gaztaia eta esnegaina. Saltsea apur bat loditzen danean, tortilla gainetik zabalduko dogu.



Pistoa

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 4 kalabazin
- Kinpula bat
- Piper gorri bat
- Piper berde bat
- Tomate heldu bat
- Arrautza bi
- Olio
- Gatza

Prestatzeko area:

Osagai guztiak prestau behar dira; hau da, garbitu, zuritu, haziak kendu eta txikitu. Lapiko baten olio apur bat botako dogu eta, bero dagoanean, osagaiak gehituko doguz banan-banan: lehenengo, kinpula; hiru minutu geroago, piperrak; geroago, tomate; eta, azkenik, kalabazinak eta gatza. Su ez-tian izango dogu. Arrautzak irabiatuko doguz. Lapikoan dogun nahastea biguntzen danean, arrautzak botako doguz. Danari eragin, eta minutu baten itxi-ko dogu egosten.

LEANDRO LANDETA

MARAGITEGIA-URDAITEGIA
Gda Euzk. 1 • Tel. 94 452 00 40 - 452 00 41

leke, s. jartetura

leke, s. jartetura
Gda Euzk. 1 • Tel. 94 452 00 40 - 452 00 41

Goiri 78 S. L.

Goiri 78 S. L.
Gda Euzk. 1 • Tel. 94 452 00 40 - 452 00 41

Ercoreca
supermerkatuak

Elikaduran adituak

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

NAGUSIAK

Apokalipsia, guztioi erakutsia

J. Gabilondo

Off-on

Y. Arrieta

Erlojugilea

A. Serrano

Arrain abisalak

X. Etxeberria

HAUR ETA GAZTE

Torrepeko zalduna

A. Olaizola

Kuku egiten ez zekien erlojua

L. Baquedano

Molly Moonek mundua geldiaraz-
ten du

G. Byng

4 urte, 6 hilabete eta 3 egun geroago

M. Bourdier

MUSIKA

Txanpirrin pintxona -haur kantak-

Nahixan

Nahixan

Sosegua

G. Mendizabal-txistu-

4

Sei Urte



Sei urte taldea

DENBORA PASA

LETRAZOPA

E	P	L	I	S	T	I	P	L	A	S	T	A
T	U	S	T	A	U	Ñ	D	B	M	A	I	B
A	F	A	Ñ	R	A	U	N	P	D	L	P	E
Z	S	F	B	N	D	L	G	D	K	Z	I	P
X	G	R	I	E	Z	T	B	N	T	L	T	Ñ
G	Y	S	F	A	P	A	P	A	N	K	A	O
P	I	O	H	K	U	K	M	U	M	O	P	M
M	X	H	J	R	H	L	Y	Ñ	P	I	A	K
R	P	I	D	O	F	E	N	J	X	U	P	J
I	S	O	H	K	M	Ñ	S	X	R	J	I	A
G	F	T	E	O	G	U	L	H	I	X	Y	J
Z	B	O	S	K	Y	N	T	X	E	T	X	E

T	B	T	Y	M	Y	E	H	A	F	H	A	T
X	D	A	I	T	O	F	E	G	O	B	B	X
U	D	I	R	O	Ñ	I	Ñ	S	Y	Ñ	I	A
R	B	E	T	D	L	N	G	D	J	H	G	T
K	E	X	S	F	U	O	Ñ	Z	S	U	J	X
U	M	I	L	I	K	I	L	I	K	I	H	T
T	R	P	S	R	U	A	M	R	L	G	U	K
X	P	U	N	B	A	L	A	P	Y	K	N	H
U	T	D	J	P	I	N	K	F	M	G	Ñ	K
R	J	P	U	L	E	X	J	O	N	X	Z	F
K	N	A	R	X	M	L	A	S	T	A	N	A
U	K	Z	P	O	L	A	O	L	B	P	Z	L

Umeakaz berba egiterakoan lexiko berezia aztertuko dogu berriro. Ea letra-zopan gai zaran **umeakaz erabiltzen diran 7 berba** aurkitzen*.

Kontuan hartu egizu Txorierrin esaten dan eran idatzita dagozela.

* Derioztarren euskara liburutik jasoak.

Ezkerraldean **AIKOR!** 83ko letra-zoparen erantzuna. Umeakaz erabiltzen diran 7 berba.

guztiek berria guretzat



Antzerkia eta filmak

Derio

–¿Habéis visto mi grito?, Luna Llena taldearen eskutik. Irailaren 18an, Gurea Aretoan.

Zamudio

–Abba musika. Irailaren 5ean, 18:30ean, Arriaga Antzokian. Izena ematea: irailaren 2ra arte.

Erakusketak

Zamudio

–VII. Pintura Lehiaketaren lanak. Irailaren 21etik urriaren 5era arte, Zamudiotorren.

Ikastaroak

Sondika

–Dantza modernoa eta perkusioa. Izena ematea: irailaren 1etik 6ra, gaztetxean.

–Udal ikastaroak. Izena ematea: irailaren 8tik 14ra, liburutegian.

–Feltrozko apaingarri tailerra. Irailaren 12an, gaztetxean.

–Larruzko eskumuturreko tailerra. Irailaren 26an, gaztetxean.

Zamudio

–Udal ikastaroak eta tailerrak. Izena ematea: irailaren 7tik 25era arte.

Lezama

–Udal ikastaroak eta tailerrak. Izena emate

tea: irailaren 15etik urriaren 3ra, liburutegian.

Irteerak

Sondika

–Kilometroak eta Nafarroa Oinez. Izena ematea: irailean, liburutegian.

Zamudio

–Europako mendiak, irailaren 11tik 13era bitartean. Arroeta mendi taldeak antolatua.

–Errioxa, irailaren 13an. Txirrin-Txirrin taldeak antolatua.

–Besaide, irailaren 20an. Arroeta mendi taldeak antolatua.

–Kilometroak eta Nafarroa Oinez. Izena ematea: urriaren 1era eta 15era arte, hurrenez hurren.

Larrabetzu

–Madariaga dorretxea. Irailaren 12an, Gure Etxeak antolatua.

Kirolak

Zamudio

–Zamudioko Zikloturista. Irailaren 19an, 9:30ean, Bidekoetxe parkean. Bazkaria, erromeria...

–Derio – Zamudio XVII. Lasterketa. Irailaren 20an, 11:00etan, Derioko kiroldegian.

Txapelketak

Sondika

–Billar Txapelketa. Irailaren 6an, gaztetxean.

–Trivial Txapelketa. Irailaren 26an, gaztetxean.

Zamudio

–San Martin jaietako VIII. Kartel Lehiaketa.

Lanak agintzeko epea: irailaren 30era arte, udaletxean.

Bestelakoak

Sondika

–Mugikortasun Iraunkorraren Astea. Irailaren 14tik 26ra: erakusketak, tailerrak...

Zamudio

–San Martin jaiak antolatzeko batzarra. Irailaren 15ean, 19:30ean, udaletxean.

–Olentzeroren Eguna antolatzeko batzarra. Irailaren 22an, 19:30ean, Gazte-estazioan.

–Mugikortasun Iraunkorraren Astea, irailean.

Lezama

–Mugikortasun Iraunkorraren Eguna. Irailaren 25ean, 17:30etik 20:30era, eskolan eta kiroldegian. Bide-segurtasuna jorratzeko zirkuittua, zazpi legoatoko botak, segway...

Larrabetzu

–Mugikortasun Iraunkorraren Astea. Irailaren 16tik 22ra. Irailaren 18an, jai handia: patinete tailerra, bike trial...

GORBELA MERTZERIA



Contado Salda 7
DAMUJO
TEL: 945 181 181

MARINER **BARCELONA**



RESTAURANTE MEDITERRANEO
Situado en el centro de la ciudad de
Barcelona, Mariner ofrece una
exclusiva gastronomía mediterránea
con productos de primera calidad.

BAR RAFI



BARRAFÍ
CALLE DE LA PLAZA DE LA VILA, 10
TEL: 938 104 104

MARMOLERIA TXORIERRI
MARMOLDEGIA

Sakalke eta bainageletako harriak
fotusak, atariak eta hilerriak.

Tamara Capelán Iradi, P. JR. - marm. 2º
48170 ZAMUDIO (BIZKAIJA)
TEL/Fax: 94 608 01 41 - 2

BATCHELOR - TROU TINDA

Ruben

Antzokian Lehen Plaza, 5 - Tel: 94 652 14 49
Zamudio (Bizkaija)

IMBUDO DEBORDO LUPANOLAN ETOLA



LAZARTE DEBORDO
TEL: 945 181 181
TEL: 945 181 181

ZAMUDIO



Barrio de San Martín, 1
Teléfono / Fax: 94 608 01 41 - 2
94 608 01 41 - 2

ALTZARIEN ZATARRKATZEA

Alfonsina Alfonsina

Alfonsina Alfonsina
TEL: 945 181 181
TEL: 945 181 181

SANTI MAMI




LAZARTE DEBORDO
TEL: 945 181 181
TEL: 945 181 181

Gora Lezamako jaiak



*Parle harlu
gure jaietan*



Ayuntamiento de
LEZAMA (B. Urbión)

jaiak euzkoran bit!

Barandiarán 121-8 Lezama 48110 26-44

Begoña
Izabela eta Iñaki gurekin gela

Jaiak
Lezama

INGURTEA
Lezama eta Lezama
200 euro
50 euro

SimePack

gurekin eta... **ingurteak**... **gurekin gurekin**

SimePack

Lezama eta Lezama eta... **ingurteak**... **gurekin gurekin**

Lezama eta Lezama eta... **ingurteak**... **gurekin gurekin**

JATETXEA
Gaztedi

Lezama eta Lezama eta... **ingurteak**... **gurekin gurekin**

LA
GUN
KOR

Lezama eta Lezama eta... **ingurteak**... **gurekin gurekin**

AM

Lezama eta Lezama eta... **ingurteak**... **gurekin gurekin**

- Lezama eta Lezama eta... **ingurteak**... **gurekin gurekin**
- Lezama eta Lezama eta... **ingurteak**... **gurekin gurekin**
- Lezama eta Lezama eta... **ingurteak**... **gurekin gurekin**
- Lezama eta Lezama eta... **ingurteak**... **gurekin gurekin**

Lezama eta Lezama eta... **ingurteak**... **gurekin gurekin**

**Gure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...maila handiko teknologiarekin.

ITP Taldean atalekin handia egiten dugu karketa alorrean hegazkin-motor eragilekomagunak eta ultrasonikaren UV² garapen teknika dutenak. Gure motorak erabiltzen dituzten hegazkinak, batez ere, erabiltzen dituztenak dira, eta horiek dira gure enpresa baten erantzukizuna. Gure enpresa baten erantzukizuna da, batez ere, erabiltzen dituztenak dira, eta horiek dira gure enpresa baten erantzukizuna. Gure enpresa baten erantzukizuna da, batez ere, erabiltzen dituztenak dira, eta horiek dira gure enpresa baten erantzukizuna.

